




## A eredua.

### Haur Hezkuntzarako 12 proiektu



#### Gida didaktikoa

##### 3 urte

-  Euskara gela ezagutzen
-  Hemen dago Olentzero!
-  Maite zaitut!
-  Pailazokeriak

##### 4 urte

-  Zazpi galtzagorriak
-  Fruta-denda
-  Ikusi, ikusi han!
-  Mielo, Mielo, Miel Otxin

##### 5 urte

-  Altxorraren bila
-  Artistak gara
-  Buruko hura nork egin zion jakin nahi zuen satortxo
-  Ikimilikiliklik



## A EREDUA: HAUR HEZKUNTZARAKO GIDA DIDAKTIKOA

Egileak:

Maider Ayerdi Serrano

Batirtze Foruria Iturrizaga

Rakel Santamaria San Roman

Laguntzailea: Laura Cordon Martinez

Testuen zuzenketa: EIBZ (Nekane Orbegozo Alkorta, Iñaki Mundiñano Larraza, Marian Antoñana Abalos, Miren Basurto Luzuriaga)

Maketazioa: EIBZ (Sagra Crespo Zulet)

Irudiak: Juan Sukilbide, Jesús Mari Pastor

Eskubideak: Nafarroako Gobernua

ISBN: 978-84-235-3340-4

LG:

## AURKIBIDEA

## ATARIKO OHARRA

## 1. SARRERA

1.1. Justifikazioa.....	3
1.2. Helburuak eta edukiak: Haur Hezkuntzako Curriculumuma.....	4
1.3. Haur Hezkuntzako 2. zikloko haurren ezaugarri orokorrak.....	10
1.3.1. Ezaugarri orokorrak.....	10
1.3.2. Ezaugarri orokorrak, adinaren arabera sailkatuta.....	12
1.4. Gelan 4 trebetasunak lantzeko ideiak.....	14
1.5. A ereduaren ezaugarriak.....	17
1.6. Metodologia ikuspegiak.....	18
1.6.1. 2Hren didaktikari buruzko oinarritzko irizpideak.....	18
1.6.2. Nola bideratuko dugu hori guztia?.....	19
1.6.3. Metodologiaren inguruan zenbait proposamen.....	28
2. HTB (Hizkuntzen Trataera Bateratua).....	29
3. ANIZTASUNAREN TRATAERA.....	31
4. METODOAREN EZAUGARRIAK.....	32
4.1. Proiektuak.....	32
4.1.1. Zer dira proiektuak?.....	32
4.1.2. Zergatik oinarritu proiektuetan?.....	32
4.1.3. “Egin behar duzue” esalditik, “Nola egin genezake?” esaldira.....	33
4.1.4. A ereduan proiektuen bidez lan egiten.....	33
4.1.5. Proiektu multzoen aukeraketa.....	34
4.1.6. Proiektuetan ager daitezkeen ekintza motak.....	36
4.1.7. Proiektu berri bat sortzeko pausoak.....	37
4.2. Maskota.....	40
4.3. Errutinak.....	41
4.4. Horma-irudia.....	45
4.5. Dosierra .....	45
4.6. Sentimenduen taula.....	45
5. PROIEKTU BAKOITZAREN DINAMIKA.....	46
5.1. Proiektu baten denbora antolaketa.....	46
5.2. Saio bakoitzaren denbora antolaketa.....	47
5.3. Jarduera motak.....	48
6. EBALUAZIOA.....	49
6.1. Irakaslearen ebaluazioa.....	49
6.1.1. Ikaskuntza prozesua.....	49
6.1.2. Irakaskuntza prozesua.....	51
6.2. Ikaslearen ebaluazioa.....	53
6.2.1. Irakaskuntza prozesua.....	53
6.2.2. Ikaskuntza prozesua.....	54
6.3. Ebaluazioaren uneak eta tresnak.....	54

## ATARIKO OHARRA

Arras pozgarria da A ereduari zuzendutako Haur Hezkuntzako material hau aurkeztea.

Euskara irakasgai gisara duen eredu honek, joan zen mendeko 70eko hamarkadan sortu zenetik, material gabeziari egin behar izan dio aurre. Horren ondorioz, urtero-urtero hamaika irakaslek buru-belarri aritu behar izan dute lanean ehunka ikaslerendako material egokia prestatzen.

Nahiz eta urteak eman ditugun hobekuntza-ikastaroak eta jardunaldiak antolatzen eta materialak prestatzen, eredu honetan oraindik ere badira bete beharreko hutsune batzuk, Haur Hezkuntzan bereziki.

Gabezia hori betetzera dator, hain zuzen ere, orain aurkezten dizuegun materiala: A ereduko Mainer Ayerdi Serrano, Batirtze Foruria Iturizaga eta Raquel Santamaria San Roman irakasleek 12 proiektu prestatu dituzte Haur Hezkuntzako 3, 4 eta 5 urtekoen geletan erabiltzeko; gida didaktiko lagungarria ere idatzi dute metodologiaren eta baliabideen berri emateko. Raquel Santamaria, gainera, proiektuen koordinatzailea izan da, EIBZko irakaslea eta aholkularia izan den bitartean. Horrez gain, Laura Cordon Martinezen laguntza ere eskertzekoa izan da.

Lerro hauen bitartez, eskerrak eman nahi dizkiegu hiru egileei material hau sortzeko egin duten lan itzelarengatik. Prestatu duten materiala funtsezko oinarria izanen da beste proiektu batzuk sortzeko, eta hori eskertzekoa da bene-benetan.

Eduardo Aldasoro Lezea

Euskara atalburua

# 1. SARRERA

## 1.1. Justifikazioa

Bigarren Hizkuntzen irakaskuntzak azken urte hauetan izan duen garapena eta A eredurako material falta nabarmena dela eta, irakasle talde batek Haur Hezkuntzako A eredurako programazio proposamena sortzeko beharra ikusi zuen.

Gure asmoa izan da programazio proposamen bat formatu erabilgarri batean gauzatzea. Programazio hau irakasleen eskura izanen da erabiltzeko, kontsultatzeko, ideiak hartzeko eta euren gelako egoerara moldatzeko. Horrexegatik diogu proposamena dela, irakasle bakoitzak bere taldearen ezaugarriak eta testuingurua kontuan hartuta bere egoerara moldatu beharko duelako. Irakasle bakoitzak behar duen informazioa hartu eta bere taldera, haurren interesetara eta lan egiteko duen erara moldatu beharko du. Hots, irakasle bakoitzak taldeko egunerokotasunera egokitzeko pentsatuta dago.

Aurkezten dugun programazio proposamen hau proiektuetan oinarrituta dago. Eta zergatik aukeratu dugu proiektuka lan egitea? Haurren interesak eta erritmoak errespetatzen direlako eta proiektuek azken ekoizpen bat egiteko aukera ematen digutelako. Proiektuetan eginen diren jarduerak azken ekoizpen bat lortzeko sarea osatuko dute; horien bidez, haurren trebetasunak landuko dira, eta azkeneko ekoizpenarekin haurrek duten asmo komunikatiboa asetzen saiatuko gara.

Programazio proposamen honek irakasleari lan eraginkorra egiten lagunduko dio. Alde batetik, haurren adinari eta interesei egokituak dauden materialak emanen dizkiolako; eta bestetik, ikasturtean zehar euskararen irakaskuntza, ikaskuntza eta ebaluazioa aurrera eramateko proposamen egituratuak ere eskainiko dizkiolako.



Agian, eskola batzuetan erabiltzen den metodologiarekin ez da bat etorriko, baina kontuan hartu behar dugu gaur egungo haurrak ez direla orain dela 20 urteko haurrak bezalakoak. Beraz, beharbada, gure metodologia baloratu eta aldatu egin beharko genuke, eta bestelako metodologiak probatu eta ikertu beharko genituzke.

Gure proposamenean, Haur Hezkuntzako maila bakoitzeko 4 proiektu-eredu bildu ditugu; gure haur taldeekin egindako esperientzia txikia da. Bestalde, proiektu berriak gauzatzeko pausoak ere deskribatu ditugu. Asmoa da irakasle bakoitzak bere gelara egokitutako proiektu berriak sortzea, aurreko ikuspegiak apurtzeko malgutasuna izan dezagun. Horregatik, programazio irekia aurkeztu dugu. Malgutasunaren arrazoa honako hau da: irakasleen funtzio garrantzitsuenetarikoa da beren gela eta eskolaren ezaugarrietatik abiatuz ikasturtea programatzea. Programazio itxia aurkeztuko bagenu, berriro planteamendu zaharrekin jarraituko genuke. Norberaren hezkuntza-ekintza, urteko programazioa eta bestelakoak antolatzeko askoz ere erabilgarriagoa da adibide batzuetatik abiatzea.

Aurrerapenak izan dira Haur Hezkuntzan irakasteko metodologian. 2Hek (Bigarren Hizkuntzek) berrikuntza horiekin bat egin behar dute. **Euskara ikastetik euskaraz ikastera pasatu behar dugu.**

Nafarroako Hezkuntza Departamentuko Euskara Atalak eta EIBZk, Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroak, ezinbestekoa ikusten dute bide horretatik jarraitzea, A ereduan euskararen irakaskuntza baliagarria eta esanguratsua izateko.

## 1.2. Helburuak eta edukiak: Haur Hezkuntzako Curriculumak

Edozein programazio edo proiektu egiterakoan, Curriculumak dioena aintzat hartu behar dugu, horrek gure hezkuntza-ekintza antolatzeko bidea emanen baitigu. Ezin dugu ahaztu Haur Hezkuntzako Curriculumak etapa osoa arautzen duela.

**HAUR HEZKUNTZAKO CURRICULUMA: 23/2007 FORU DEKRETUAK**, martxoaren 19koak, Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako bigarren zikloko irakaskuntzatarako Curriculumak ezartzen du.

5. artikuluan Haur Hezkuntzaren bigarren zikloko arloak zehazten dira. Honako hauek dira:

- *Nork bere burua ezagutzea eta autonomia pertsonala*
- *Ingurunea ezagutzea*
- *Hizkuntzak: komunikazioa eta irudikapena*

*Komunikazioa eta irudikapena* arloaren barruan dago euskara ikasgaia, eta horretan oinarritu gara gure helburuak eta edukiak deskribatzeko. Baina horrek ez du esan nahi Haur Hezkuntzako beste arloek gurean eragina izanen ez dutenik. Haurren garapenaren prozesua globala denez, bere prozesuak hezkuntzan ere globala izan behar du.

Nahiz eta guk ikaskuntzak arloetan banatu, haurrek ikaskuntza horiek modu globalean ikasi edo barneratzen dituzte, hiru modutan: beraien osotasun pertsonaletik abiatuta (*Nork bere burua ezagutzea eta autonomia pertsonala*), ingurunearekin duten elkarrekintzaren bidez (*Ingurunea ezagutzea*) eta beren hizkuntza guztiekin adieraziz (*Hizkuntza: komunikazioa eta irudikapena*).

*Komunikazioa eta irudikapena arloan*, Haur Hezkuntzako Curriculumak 7 helburu ezartzen ditu. Gure programazio proposamena antolatzeko, arlo honetako 7. helburua aintzat hartu dugu, 2Hren irakaskuntzarekin zuzenean lotuta dagoelako. Hau da, Haur Hezkuntzako 7. helburutik abiatuko gara 2Hko hezkuntza ekintza antolatzeko.

Helburua honako hau da:

*Hizkuntzak: komunikazioa eta irudikapenaren arloa*

7. helburua: Curriculumeko beste hizkuntzak ahoz erabiltzen hastea, ikasgelan komunikatzeko, eta komunikazio trukatzeko horietan parte hartzeko interesa eta atsegina izatea.

HAUR HEZKUNTZAKO A EREDURAKO EDUKIEN PROPOSAMENA:

*Hizkuntza: komunikazioa eta irudikapena* arloan 4 multzo daude:

1. multzoa: Hitzezko hizkuntza
2. multzoa: Ikus-entzunezkoen eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien hizkuntza
3. multzoa: Arte hizkuntza
4. multzoa: Gorputzaren hizkuntza

Bigarren Hizkuntzei dagokienez, lehenengo multzoan aipatu egiten dira bakarrik, *Hitzezko Hizkuntza* multzoan. Eta lehenengo multzo horren barruan, bakarrik lehenengo azpitaldean, "*Entzun, mintzatu eta solas egitea*" izenekoan.

Gure proposamenean, *Hizkuntzak: komunikazioa eta irudikapena* arloan, aipatutako 4 multzoak agertuko dira eta 1. multzoko gainontzeko azpitaldeak ere bai. Horietatik batzuk moldatu egin ditugu eta Haur Hezkuntzan garrantzitsuak diren beste multzoak ere aintzat hartu ditugu, A ereduko egoerara eta errealitatera gehiago hurbiltzeko asmoz. A eredurako eduki egokienak aukeratzen saiatu gara.

Zergatik? Hona hemen arrazoi batzuk:

Haur Hezkuntzako 2. zikloan zehar, 2Hn gure HELBURU NAGUSIA da haurrek gutxieneko komunikazio-gaitasuna eskuratzea. Hori eskuratzeko, jarraian azalduko diren edukiak landu beharko genituzke. Aurrerago deskribatuko ditugun edukiak lantzeko, Haur Hezkuntzako 2. ziklo osoa izanen dugu.

Euskaraz gutxieneko komunikazio-gaitasuna lortzeko, helburu zehatz batzuk lortu nahian ari gara (ahozko hizkuntza, curriculumaren arabera). Baina nahiz eta ikaskuntzaren objektua ahozko hizkuntza izan, kontuan hartu behar dugu haurrak, lehen esan bezala, arlo guztiak, eduki guztiak... erabiliz lortuko duela gutxieneko komunikazio-gaitasun hori.

Euskara saioetan idatzizko euskarria ere erabiltzen dugu, eta saihestezina da idatzizkoa ere lantzea, nahiz eta curriculumean Bigarren Hizkuntzetan idatzizko hizkuntzaren hastapenari buruz ezer ez zehaztu.

Adibidez, ipuina. Ipuina euskaraz kontatzen dugunean, haurrek entzun egiten dute, baina euskarria idatzizko hizkuntza izaten da. Hau da, idatzizko hizkuntzarekin topo egitea ezin da saihestu. Hots, etapa honetan haurra irakurketa-idazketa prozesuan murgilduta dagoenez eta hizkuntza bat irakasten ari garenez, ezin dugu prozesu hori gelditu, eta horregatik euskararen ere irakurketa-idazketa prozesuari jarraipena ematea ezinbestekoa ikusten dugu, nahiz eta gehienetan euskara bere ama hizkuntza ez izan.

## EDUKIAK:

### 1. MULTZOA: HITZEZKO HIZKUNTZA

#### 1.1. **Entzun, mintzatu eta solas egitea**

- > Gelan erabiltzen diren ahozko testuen ideia orokorra ulertzea, ikasgelako eguneroko egoeretan eta gai ezagun eta arruntei buruz hitz egiten denean:
  - Arretaz entzutea.
  - Esapideak eta formulak identifikatu eta haiei erantzun egokia ematen saiatzea:
    - *Hasierako eta bukaerako agurrak*
    - *Eskaerak eta eskerrak*
    - *Jarraibide eta agindu errazak*
    - *Galdera eta erantzun errazak*
    - *Errutinak*
    - *Kantak*
    - *Dantzak*
    - *Antzerkiak*
    - *Jokoak*
- Ipuinak modu orokorrean ulertzea. Ulertzen duela modu ezberdinez adieraztea, adinaren araberrako mailakako adierazpena. Adibidez:
  - Ipuineko pertsonaien marrazkia seinalatzea, irakaslearen laguntzarekin eta galdetzen zaionean.
  - Ipuinak berriz kontatzen direnean, akats edo aldaketa nabariak antzematea (*adieraziko dute barre eginez edo “ez” esanez...*).
  - Pertsonaia batek esan behar duen esaldia aurrez esan edo gogoratzea (*batez ere ipuinaren egitura errepikakorra denean*).
  - Ipuinaren ideia nagusia zein den esatea irakaslearen laguntzarekin (*Animaliei buruz hitz egiten du?, Zer gertatzen da?, Nora doaz?...*).
  - Pertsonaia bat deskribatzea (*Zer koloretakoa du soinekoa?, Gaiztoa/ona da?, Handia/txikia da?...*).
  - Ipuin bat kontatzen zaien bitartean emozioak adieraztea (*ustekabea, beldurra, poza...*).
  - Ipuinen tituluak esaterakoan, zenbait pertsonaiaren izenak esatea eta pertsonaien izenak esaterakoan ipuinaren titulua esatea (*Txanogorritxo: Txanogorritxo, otsoa, amona.../ Hansel eta Gretel: sorgina, Hansel, Gretel...*).

- > Komunikazioko ohiko egoeretan interesa azaldu, arretaz entzun eta aktiboki parte hartzea.
- > Ikus-entzunezko baliabideen bitartez sortutako ahozko mezuak, testuak eta kontakizunak ulertzen hastea.
- > Hizkuntza bidezko trukaketa arautzen duten erregelak egoki erabiltzea: hitz egiteko txanda errespetatu, eta arretaz eta errespetuz entzutea.
- > Egitura sinpleak erabiliz, ahozko hizkuntza erabiltzen saiatzea, besteekin komunikatzeko eta sentimenduak eta oinarrizko nahiak adierazteko.
- > Euskararen sistema fonetiko pixkanaka barneratzea, eta baita hori imitatzea ere.
- > Adinaren arabera, mailakako erabilera:
  - *Hiztegi erraza*
  - *Egitura gramatikal zuzenak, adib.: gustatzen zait, ez zait gustatzen, ura nahi dut, pixa egin nahi dut...*
  - *Ahoskatze argia*
  - *Doinu egokia*
- > Abilezia eta prozedura batzuk erabiltzea: errepikatzea, buruz ikastea, hitzak eta esapideak keinuzko eta ikusizko elementuekin lotzea, formak eta egiturak ikasteko ereduak ikusi eta imitatzea.

### 1.2. Hizkuntza idatziaren hastapenak

- Euskaraz idatzita dauden testuen esanahia ezagutzeko jakin-mina.
- Gelan egunero erabiltzen diren idatzizko hitz eta esaldi arrunt eta adierazgarriak identifikatzea. Hitz eta esaldi horien bidez idazteko kodea ezagutzen hastea:
  - *Asteko egunen izenak*
  - *Ipuinen izenburuak*
  - *Gaiarekin bat datorren hiztegia*
  - *Kanten izenburuak*
  - ...
- Hizkuntza idatzia erabiltzea benetako helburuak betetzeko (*zorion-txartela, urtebetetzeetako gonbit-txartela...*).
- Irakasleak euskaraz igorritako soinu eta hitzekiko jakin-mina eta interesa izatea.
- Irakasleak gelan irakurriko dituen testuak entzuteko interesa eta arreta izatea (*ipuinak, kantak, errimak, poesiak, igarkizunak...*).

### 1.3. Literaturaren hastapenak

- Ipuinak, kontakizunak, poesiak edo errimak, bai tradiziozkoak bai gaur egunekoak, entzun eta modu globalean ulertzea, atsegin hartu eta ikasteko bide gisara.
- Gelan landu diren testuen ekoizpenarekin gozatzea (*kantak, errimak, asmakizunak...*).
- Gelan landu diren literatur testuak dramatizatzea, ahozko hizkuntza eta gorputz adierazpena erabiliz.
- Gelako liburutegia errespetuz eta kontuz erabiltzea. Liburutegia baloratzea, denbora pasatzeko eta gozatzeko baliabide informatiboa den aldetik.

## 2. MULTZOA: IKUS-ENTZUNEZKOEN ETA INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIEN HIZKUNTZA

- Marrazki bizidunak, filmak, ordenagailu programak eta antzeko ikus-entzunezko ekoizpenak ikusten hastea.
- Bideo edo DVD batean azaldutako marrazki bizidunetako edukiaren, gaien eta pertsonaien gaineko galdera errazei erantzuten saiatzea, karatuletatik abiatuz, irudia pixka batean geldituz (pauza)...
- Modu oinarrizkoan elkarreragitea, euskarazko ordenagailu programa egoki bat erabiliz.

## 3. MULTZOA: ARTE HIZKUNTZA

- Modu aktiboan parte hartzea eta gozatzea honelako jardueretan: kantak interpretatu, musika jotzen aritu eta dantzatu.
- Gelan egiten diren jarduera plastikoetan parte hartzea eta gozatzea.

## 4. MULTZOA: GORPUTZAREN HIZKUNTZA

- Keinuak eta mugimenduak esperimentatu eta adierazi eta, horrez gain, komunikatzeko baliabideak direla ohartzea.
- Dramatizazio jardueretan, dantzetan, joko sinbolikoetan eta gorputz adierazpeneko bestelako jokoetan parte hartzea.

## LABURBILDUZ, ZERTAN LAN EGIN DEZAKEGU?

A ereduko adierazleak kontuan hartuta:

- Gelan egunero erabiltzen diren mezuak entzun, ulertu eta ahal den neurrian ekoitzi.
- Gelako hiztegia erabiltzen hasi, egoera erraz eta ohikoetan, ahoz edo ahozko ez besteko prozedurak erabiliz.
- Hizkuntza erabili, gozatzeko eta, ahal den neurrian, gelako egunerokotasunean elkarrekin komunikatzeko.
- Bigarren Hizkuntza besteekin harremanak izateko eta sentimenduak eta nahiak adierazteko erabiltzen hasi.
- Testu bat entzun ondoren, irakaslearen laguntzarekin, argumentua ulertu, pertsonaiak ezagutu, titulua zein den esan....
- Idatzizko testuekiko hurbilpena: zerrendak, oharrak...
- Euskal literaturara hurbildu, euskaraz argitaratzen diren ipuinez eta liburuez baliatuta.
- Galdera errazei erantzun.
- Ahozko eta idatzizko testu batzuk ikasi: zotz egiteko formulak, olerkiak, errimak, kantak, antzerkiak...
- Nafarroako ohituretan eta Euskal Kulturaren agertzen diren pertsonaiak eta istorioak ezagutu.
- Gelako jardueretan gogoz parte hartu.

## 1.3. Haur Hezkuntzako 2. zikloko haurraren ezaugarri orokorrak

Irakasleok edozein programazio edo jarduera egiterako orduan, haurren interesak kontuan hartzeaz gain, haurren adinarekin bat datozen ezaugarriak ere aintzat hartu behar ditugu.

Haur bakoitzak bere ezaugarriak dituela jakinda, etapa honetako haurren ezaugarri orokorrak zeintzuk izan daitezkeen deskribatuko dugu. Ezaugarri orokor horiek eta gure gelako haurren ezaugarri zehatzak abiapuntua izanen dira edozein jarduera aurrera eramateko; hots, adin hauetako ezaugarriak gainerako etapetakoetatik desberdinak dira eta hori hala islatu behar du ikastetxeko, gelako eta jardueren antolaketarako planteamenduak.

### 1.3.1. Ezaugarri orokorrak

Hiru urtetik sei urte bitartera, haurrak zenbait fase igarotzen ditu. Haur Hezkuntzako bigarren ziklo honetan, lehen zikloan egindako hastapenak zabaldu eta sendotzen joanen da. Hala ere, haur batzuentzat haxe izanen da etapako lehen urtea; hortaz, egokitze prozesuari ezinbesteko garrantzia eman beharko diogu.

Oro har, haurra jakin-minaren etapan dagoela esan dezakegu, *zer*, *zergatik* eta *zertarako* galderak egin eta poliki-poliki erantzuten hasiko baita.

Mugimenduaren garapena:

- Etengabe mugitzeko beharra izaten du. Mugimenduzko jolasak eta lasaiagoak tartekatzen ditu. Koordinazioa, oreka eta erritmoa duten jarduerak aproposak izanen dira horretarako.
- Eskuen kontrolari esker, gero eta ekintza gehiago egin ditzake: elkartu, moztu, marraztu, margotu, erantsi, lotu eta abar.
- Etaparen bukaeran, esku baten erabilera gailenduko da.

Ezagutzaren garapena:

- Bere inguruneari buruzko informazioa zabalduz doa.
- Hasierako urteetan, jolas sinbolikoa oso garrantzitsua izanen da, eta horretaz baliatuko da bere ezagutza handitzeko.
- Pentsamendu logikoranzko bidea egiten hasiko da.
- Nahiz eta fantasia eta irudimen handia izan, poliki-poliki, mundu erreala eta asmatutako mundua hobeki bereiziko ditu.
- Koloreak, formak eta tamainak bereiz ditzake.
- Gauza berriak ikasteko gogoaz azalduko du.

Hizkuntzaren garapena:

- Ahozko hizkuntzaren bitartez, komunikazio-gaitasuna izugarri aberastuko du.
- Hitzen kopurua handitu eta kalitatea hobetuko du, ingurunea hobeki ezagutzen duelako eta elkarrekintza sozial gehiago izaten dituelako.
- Gero eta elkarrizketa konplexuagoak izanen ditu eta testuinguruarekin lotuagoak.
- Gai izanen da denbora gehiagoz entzuteko, eta kontakizun konplexuagoak ulertuko ditu.



Garapen giza-afektiboa:

- Oro har, plastika, musika eta dantza jarduerak atsegin dituela esan daiteke. Aproposak izanen dira ezagutza berriak lortzeko eta dituenak finkatzeko.
- Batzuetan, helduen aurkako jarrerak azaltzen dira, baina, poliki-poliki, berarekin arrazoituz, helduen proposamenak onar ditzake.
- Taldeko jolasetan parte hartzen hasten da. Sarritan, lagun min bat izaten du gelan eta berarekin antolatzen ditu jokoak.
- Gero eta jarrera irekiagoa du, baina oraindik egozentrismoa ageri da. Gelan, laguntza eskaini behar diogu berekoitasun horretatik ateratzeko; jarduerak proposatuko dizkiogu materiala eta jostailuak partekatzeko, txanda errespetatzeko....
- Egunetik egunera, gero eta autonomoagoa izanen da: jantzi eta erantzi, jan, jaso...
- Oro har, bai eskolako bai eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzea atsegin du.
- Jolasterakoan, berarekin nor jolastuko den erabakitzen du maiz.
- Jolastean, arau eta kodeak errespetatzen hasiko da.

Hala ere, haur bakoitzak bere garapen erritmoa duenez, sailkapen guztien gainetik, haur bakoitzaren bilakaera indartzea eta errespetatzea izanen da hezkuntzaren helburua.

1.3.2. Ezaugarri orokorrak, adinaren arabera sailkatuta

(El desarrollo psicológico del niño de 3 a 6 años, Nafarroako Gobernua, Hezkuntza Departamentua)

	3-4 URTE	4-5 URTE	5-6 URTE
<p>GARAPEN PSIKOMOTOREA</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Mugimenduen koordinazio hobe: <i>jauzi egin, korrika egin, dantza egin...</i></li> <li>- Eskuekin eta besoekin objektuak hobeki maneiatzen ditu: <i>baloia jaurti eta bote egin.</i></li> <li>- Oreka ez du finkatuta.</li> <li>- Eskuen abilezia garatuz doa: <i>margotu, zirriboratu...</i></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Mugimenduak hobetzen dira, gutxiagotan erortzen da.</li> <li>- Eskuen abilezia asko hobetzen da eta mugimendu zehatzagoekin <i>ebaki, zulatu eta margotzen du.</i></li> <li>- Marraztean batzuetan irudi oso txikiak egiten ditu eta besteetan, aldiz, folio osoa betetzen du.</li> <li>- Atsegin du <i>mozorrotzea, abestea, jolastea, lasterketak egitea....</i></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bere gorputza gero eta hobeki ezagutzen du: <i>salto egin, aldapak igo, eskaileretan korrika egin, eta gutxiago nekatzen da bere mugimenduak doituago daudelako.</i></li> <li>- Musikaren erritmoan mugitzen da.</li> <li>- Jarduerak egiteko orduan, esku berari ematen dio lehentasuna: <i>moztu, marraztu, kartak banatu, margotu, ...</i></li> <li>- Eskuen abilezia eskatzen duten jarduerak gero eta zehatzagoak dira: <i>marraztu, zulatu, moztu, plastilina manipulatu... Aurrerapen horiek ezinbestekoak dira idazketaren ikaskuntzarako.</i></li> </ul>
<p>ADIMENAREN GARAPENA</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egoera errealek imitatuz ikasten du. Joko honen bidez haurrak inguruan duena (<i>gurasoak, etxetxoak, medikua, irakasleak...</i>) eta helduen jarduerak ezagutzen ditu. Jostailuekin hitz egiten du.</li> <li>- Ikusten duena uler dezake bakarrik, eta pertsona edo objektu beraren aldatetaz ez da jabetzen.</li> <li>- Hizkuntzak garrantzi handia du, jolasei aberastasun handiago ematen dielako eta kontzeptuak finkatzen laguntzen dielako.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ez da gai gertatzen diren gauzen azalpenak emateko. Gauzak erlazionatzen ditu benetako zergatia ulertu gabe: <i>hodeiak mugitzen dira ni mugitzen naizelako.</i></li> <li>- Ez zaio nahikoa gauzak zer diren jakitea, gauzen zergatia eta zertarako diren ere jakin nahi du. Horregatik, garrantzitsua da gauzak esku artean erabiltzea beraien forma, tamaina, usaina, zaporea, kolorea eta zarata ezagutzeko.</li> <li>- Nabaritzen duenaren inguruan pentsatzen du soilik, adibidez: <i>ur kopuru berarekin betetzen baditugu edalontzi bat eta botila bat, edalontzian botilan baino ur gehiago dagoela esanen du, edalontzia botila baino beteago baitago.</i></li> <li>- Olerki txikiak ikasten ditu, eta gehien gustatu zaizkionak gogoratzen ditu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aurretik erabiltzen zuen pentsatzeko era pixkanaka-pixkanaka utziz doa, eta bere inguruan gertatzen diren gauzez ohartzen da.</li> <li>- Hizkuntzaz baliatzen da eta, horri esker, gauzen zergatiak biltzen ditu.</li> <li>- Galdetzen duenean, informazioa lortzeko asmoa izaten du.</li> </ul>



<p><b>HIZKUNTZAREN GARAPENA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Soinu gehienak badakizki, baina ez dugu larritu behar batzuetan okertzen bada edo aldatzen baditu.</li> <li>- Erabiltzen dituen esaldiak aurretik erabiltzen zituena baino luzeagoak dira.</li> <li>- Helduon jorkaera imitatzen saiatzen da.</li> <li>- Hizkuntza erabiliko du galderak ulertu eta egiteko, esaldiak ulertu eta ekoizteko.</li> <li>- Berritsua izaten da.</li> <li>- Hitz bat gaizki ahoskatuz gero, ez du imitatzerik nahi.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Haurraren artikulazioak hobekuntza nabarmena du.</li> <li>- Gero eta akats gutxiago egiten ditu.</li> <li>- Gero eta aditz gehiago erabiltzen ditu, eta esaldiak luzatzen ditu zergatia eta ondorio erlazioak adieraziz.</li> <li>- Hiztegia oso zabala da eta hizkuntza aztertzea atsegin du, hitz berriak edo barregarriak ikasiz.</li> <li>- Hitz katalogoarekin disfrutatzen du, eta gehiago aberastu nahi du.</li> <li>- Helduekin hitz egitea gustatzen zaio (<i>telefonoz hitz egitea, eskolan gertatu dena kontatzea...</i>).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hizkuntzaren soinu guztiak ahoskatzen ditu, eta egiten zituen okerrak desagertuz doaz.</li> <li>- Denbora adierazten duten esaldiak erabiltzen ditu.</li> <li>- Bere hiztegia aberasten da, baina ez aurreko urteetan adina.</li> <li>- Ipuin eta pampinekin antzerkiak egitea gustatzen zaio.</li> </ul>
<p><b>OHITURAK</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Normalean, gustura dago etxean, familian, ezezagunen artean eta bere adineko haurrekin.</li> <li>- Laguntzeko prest egoten da eta atsegina izan nahi du, arretaz entzuten du eta mandatu errazak egin ditzake.</li> <li>- Hala ere, helduen desioen kontra jar daiteke maiz, besteak beste ezberdintasunak ezartzeko asmotan.</li> <li>- Jostailuak beste haurrekin partekatzen hasiko da, baina, nahiz eta elkarrekin jolastu, ez dago elkarrekintzarik.</li> <li>- Bi jokabide azaltzen dira:             <ul style="list-style-type: none"> <li>- <i>Jeloskor jartzea</i>: bereziki anaia/arreba jaiotzen denean.</li> <li>- Egoera jakin eta zehatzekiko <i>beldurrak (ekaitzak, iluntasuna...)</i>.</li> </ul> </li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Adimenean dituen aurrerapenei esker, ingurunea ezagutzen hasten da (<i>familiako kideak ezagutzen ditu, gelako lagunen izenak...</i>) eta bertan betetzen duen lekua ere bai (<i>bere herri edo auzoaren izena eta bere helbidea</i>).</li> <li>- Nortasun ezaugarriak:             <ul style="list-style-type: none"> <li>- Bere sortze-ianez harro sentitzen da.</li> <li>- Arreta erakarrarazten du.</li> <li>- Helduen aurrean erakustea atsegin du.</li> </ul> </li> <li>- Helduekin identifikatzen da eta imitatzeko joera du, "helduen" gauzak egitea gustatzen zaio (<i>amaren zapatak jantztea...</i>).</li> <li>- Epe laburrean, arau errazak dituen joko batean jolas daiteke, baina, bukaeran, anarkia agertzen da eta nor berearekin aritzen da.</li> <li>- Sexuen arteko ezberdintasunen inguruan interesa azaltzen du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Familiako harremanetan oso baikorra izaten jarraitzen du.</li> <li>- Mendekoa denez, atsegina izaten saiatzen da.</li> <li>- Gai da edozein heldurekin elkarriketa bat izateko.</li> <li>- Anai-arrebekiko jarrera babeslea hartzen du.</li> <li>- Beste haurrekin jolasten da, eta jokoan arauak onartzen ditu.</li> <li>- Telebista asko gustatzen zaio.</li> </ul>
<p><b>AUTONOMIA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Koiilararekin jaten du.</li> <li>- Gau osoan lo egin dezake ohea busti gabe.</li> <li>- Eskuak bakarrik garbitzen eta lehortzen ditu.</li> <li>- Jantzi eta erantzeko interesa du. Sartze erraza duten botoiak askatzen ditu.</li> <li>- Gauzak bakarrik egin nahi ditu, baina batzuetan, pazientzia faltagatik, helduok egiten dizkiogu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Batare laguntzarik gabe jan dezake.</li> <li>- Gai da arropa arrunta jantzi eta erantzeko, inolako laguntzarik gabe.</li> <li>- Eskuak, aurpegia eta hortzak garbitzen ditu.</li> <li>- Lokarriak lotzen ikasten du.</li> <li>- Ohera joateko unea atzeratzen saiatzen da. Ipuinak kontatzeko eskatzen du.</li> <li>- Jostailuak jaso eta ordena ditzake.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Mahaian duen portaera hobetzen du (<i>ez du janaria barreiitzen, ez da haimbeste zikintzen</i>).</li> <li>- Dirua maniatzeko gai da, eta erosketa txikiak egin ditzake.</li> <li>- Kalea egoki zeharkatzen du.</li> <li>- Gelako materialak egoki erabili eta bere gelakideekin partekatzen ditu.</li> </ul>

## 1.4. Gelan 4 trebetasunak lantzeko ideiak

Haur Hezkuntzan 2Hn gutxieneko komunikazio-gaitasuna lortzeko, ezinbestekoa da lau trebetasunak lantzea. Batez ere ahozko hizkuntza (mintzamina, entzumena) landu arren, idatzizko hizkuntza (irakurketa, idazketa) lantzea ere proposatzen dugu, ahozkoa adina landuko ez badugu ere.

### 1) AHOZKO HIZKUNTZA

Aparteko garrantzia du etapa honetan, horren bidez ikaskuntzak barneratu eta beren nahiak, sentimenduak eta bizipenak kanporatuko baitituzte. Bigarren Hizkuntza ikasten ari garenez, irakaslearen laguntzarekin, ikasleek asko praktikatu beharko dute entzumen eta mintzamen trebetasunak garatu ahal izateko.

Zenbait egoera oso egokiak dira ahozko elkartrukea eragiteko:

#### a) MINTZAMENA:

- **Eguneroko bizitzako ahozko komunikazio egoera errealak:** egunero erabili beharko ditugu ahozkotasuna sustatu nahi badugu. Adibidez: *Lokarria askatu zaizu?, Lotuko dizut?...Korro eta errutina jarduerak...*
- **Egoera simulatuak:** eduki zehatzak lantzeko egin daitezke. Adibidez: *gai baten inguruko hiztegia, egiturak eta abar barneratzeko asmatutako elkarrizketa laburrak...*
- **Aurkezpenak:** lanen, marrazkien... inguruan ahoz egindako aurkezpenak.
- **Dramatizazioak:** doinua, keinuak, gorputz jarrera... Adibidez: *ipuetan kontatzen diren istorioak antzeztu, psikomotrizitate jarduerak, joko sinbolikoaren txokoa...*
- **Literatur testuak:** *ipuin, olerki, kanta, aho korapilo eta abarrak ekoitzi.*

Aintzat hartu beharko dugu hurrek komunikazio saiakera hauetan, hasieran bereziki, 1H erabiltzera joko dutela. Ama hizkuntza erabiltzen ikasteko prozesuaren berezko elementua da, hizkuntza berria barneratzen hasten ari dela erakusten du. Hortaz, euskara irakasleak elkarrizketak normal bideratuko ditu, eta elkarrizketaren barruan itzulpenak egingen ditu, ez baitute trabarik sortuko, hurrari euskaraz komunikatzeko tresna egokiak emanez.

Euskaraz eginez, irakasleak hurrari euskaraz hitz egiteko tresnak emanen dizkio. Ereduek argiak, ulergarriak eta erabilgarriak izanen dira.

#### b) ENTZUMENA:

- **Hainbat testu entzutea:** ulermena lantzeko. Adibidez: *nagusiek grabatutako ipuina Haur Hezkuntzako hurrek antzezte, istorio batean akatsak identifikatzea, entzutea eta marraztea, joko mnemoteknikoak (memoria+arreta), irakaslea kontatzen ari den bitartean ipuina antzezte...*
- **Soinuak entzutea:** hainbat soinu entzutea, gero horien inguruan eztabaidatzeko. Adibidez: *Zer entzun duzue?, Animalia bat entzun duzue?, Zein animalia da?...*

Ahozko komunikazioa ahalik eta modu naturalenean sortzeko, gelan giro lasaia egotea erraztu behar dugu. Honela, haurrak arreta positiboari eutsiko dio, gusturago eta erosoago egonen da, eta landutakoa sakonago barneratuko du.

Estres egoerarik ez izateko, gelan estres gutxiko jarduerak landu behar dira, blokeorik gerta ez dadin:

- Jarduerak testuinguru erosoan gauzatu behar dira: *gela txukuna, txokoak ongi antolatuta, materialak eskura daudela...*
- Entzulearen ezagutza maila aintzat hartu behar dugu: *zer dakien gaiaz, hizkuntzaz...*

Komunikazioa errazteko, haurrari estrategiak eskaini behar zaizkio:

- Lorpen estrategiak: beharrezkoa denean ordezeko zerbait asmatuko dugu mezua uler dezan: *mimika, irudiak, soinuak...*
- Erredukzio estrategiak: mezu osoa ez dugu komunikatzen, zati bat ematen diegu eta beraiek bukatzen dute. Adibidez: *Zein animalia duzue etxean? Txaku...rra.*

## 2) HIZKUNTZA IDATZIA

2Hn, hizkuntza idatziaren irakaskuntzak hurbilpen esanguratsu eta funtzionalera bideratuta egon behar du. Horrela, idatzizko hizkuntzaren erabilerari zentzua emanen zaio. Etapa honetan, oinarritzkoa da irakurketa-idazketan aritzeko interesa eta nahia piztea.

Aurretik adierazi dugun bezala, haurraren irakurketa-idazketa prozesua ez eteteko, euskaran ere zeregin horretan arituko gara, ahozko testuari ematen zaion ikuspegi berbera emanez.

### a) IRAKURKETA

2Hn beharrezkoa da testu ulergarri eta errazen bitartez ikasleak haur literaturara hurbiltzea; euskal literaturan haztea, gozatzeko, dibertitzeko eta jolasteko.

1. IRAKURRIAREN ULERMENA: irakurriaren ulermena lantzeko, ipuinak lagungarriak izanen dira. Ipuinez gain, zeregin honetan baliagarriak izanen dira errezetak, oharrak, zerrendak, argazki-oinak, aldizkariak...

Ipuina: Bigarren Hizkuntzen irakaskuntzan dugun baliabiderik garrantzitsu eta interesgarrienetariko bat da. Euskaraz irakurriko dugun testuaren esanahiaz jabetzeko, ulermen estrategien ahozko lanketak garrantzi handia izanen du hasiera-hasieratik.

- Ipuina irakurri aurretik: irakasleak bideratuta.
  - Motibazioa: *ipuina egun batzuk lehenago gelan leku ikusgarri batean jartzea, kutxa batean gordeta, ipuinen artean beraiek aukeratzea, haurrek ekarritako ipuin bat irakurtzea...*
  - Aurrezagutzak kanporatzea: *Ipuina ezagutzen duzue?, Gustatzen zaizue?, Nor da hau?, Zein da titulua?...*
  - Euskarria aztertzea: *ipuin, aldizkari, olerki, eta abarren formatuari erreparatzea: Zer ikusten duzue hemen?, Marrazkirik badago?, Eta letrarik badago?, Non daude letrak?...*

- Arretari eusteko estrategiak: *gaia aurreratuz, hipotesiak formulatuz, ipuina hasi baino lehen formula deigarri bat erabiliz...*
- Ipuina irakurtzen dugun bitartean: irakasleak bideratuta.
  - Ipuinaren entzumena: *ipuina kontatzean doinua aldatuz, ahots ezberdinak jarritz, sustoren bat emanez...*
  - Akatsak sartuz: kontatzen dugun hurrengoetan, kontakizunean akatsak sar ditzakegu: *protagonisten izenak aldatu, izen berri bat asmatu, beste tokiren bat, ipuinaren irudiak desordenatu...*
- Ipuina entzun ondoren: irakasle eta ikasleek bideratuta.
  - Aurretik egindako hipotesiak baieztatu: *Zeintzuk ziren protagonistak?, Nola dago printzesa: triste ala pozik?...*
  - Talde antzerkia: ipuina kontatzen den bitartean antzeztea, bukaera berria antzeztea...
  - Berrirakurketa: ipuina beste zenbaitetan berrirakurtzean, aurrea hartzeko estrategiak eskainiko dizkiegu haurrei.
  - Pertsonaien azterketa: *Nola dago hartza?, Haserre dago?, Zergatik?...*
  - Izenburua: *Beste izenbururik pentsatuko dugu? (oso bideratuta), Zein gustatzen zaizue gehiago, zuen izenburua edo ipuinarena?...*
  - Sekuentziak ordenatzea: ipuina osatzen duten irudiak ordenatzea. Lehenbizi, hasierako edo bukaerako bi irudi faltako dira bakarrik. Aurrerago, ipuin osoa desordenatzeko aukera izanen dugu. Ordenatzen duten bitartean, komenigarria da zer egiten ari diren azaltzea: *Zergatik hartu duzu hori?, Non jarriko duzu? Oso ongi, hor behar du, txerrikumeek ipurdia kiskali diotelako, Ongi dago?, Ez?, Zergatik?, Nork ordenatuko du?...*

2. EKOIZPENA: haur bakoitzaren erritmoa aintzat hartuko dugu, ekoizpena inongo presiorik gabe egin dadin. Irakurketa bideratua sustatu behar dugu, mailari egokitua eta irakaslearen laguntzarekin. Gelan, komenigarria da testu mota ugari (ipuinak, olerkiak, aho korapiloak, igarkizunak...) eta zailtasunaren arabera mailakatua izatea.

Ekoizpena lortzeko, idatzizko euskarriak eduki behar ditugu ikasgelan. Alde batetik, testu gutxikoak, non irudia protagonista den, adibidez: *asteko egunen kartelak, ipuinen izenburuak, gaiarekin harremana duten irudi-hitz kartelak, egunkariak, horma-irudiak...* Testu osoek ere hasieratik garrantzi handia hartuko dute, eta komeni da ahalik eta errealenak izatea, adibidez: *ipuinak, olerkiak, kantak, gonbitak...* Horiek idatzizko formatuan gelan izan ditzakegu, haurrek nahi dutenean kontsulta ditzaten.

Gelako liburutegi txikiak ere lagunduko digu zeregin horretan. Bertan ipuin egokiak izatea komeni da. Horretarako, irakasleak ongi aukeratu beharko ditu: irudiak dituztenak, irudiak eta testu laburra edo hitzen bat eta testu gehiago dutenak, maila guztietara egokitzeko.

Haurrek etxetik ekarritako propaganda-liburuxkak, ipuinak, gai baten inguruko informazioa... Ahal den neurrian euskarara itzultzen saiatuko gara, ahoz beti, eta idatziz ahal denean.

Haur Hezkuntzako etapan gaudela kontuan hartuta, eta haurra behar bezala garatzeko koordinazioa ezinbestekoa dela jakinik, komenigarria da irakurketa-idazketa prozesuan tutoreak

duen metodo bera jarraitzea. Haurren ama-hizkuntzan idatzizko eta ahozko testuari ematen zaion tratamendu eta erabilitako ikuspegi berbera eman behar zaio 2Hri. Irakurketa eta idazkera egokiak lortzeko, haur bakoitzaren erritmoa errespetatu beharko dugu, eta, ikasketa esanguratsu eta eraikitzaile baten barruan, beharrezkoak dituen arauak eta jarraibideak eman.

Hori guztia kontuan hartuta, gure gelako materiala antolatuko dugu.

## b) IDAZKETA

Irakurketan bezala, idazketan esanahitik abiatutako mezuaren eraikuntzan oinarrituko gara. Komunikazio ekintzaren helburua aintzat hartu behar dugu: zer adierazi nahi dugun (helburua), nori (hartzailea), zertarako, eta horretarako erabiliko dugun testu mota. Hots, 2Hn idazketa funtzionaltasunari loturik egin behar dugu, hurrek hasieratik ezagutuko duten helburu zehatz batekin.

Nola bideratu?

Komunikazio behar errealak betetzen dituzten jarduerak egin behar dira: *etxerako ohartxo bat, beste gelakoei gure antzerki bat ikusteko gonbidapena, ikustaldi baterako sarrerak, horma-irudi informatiboak...*

- Eredubati jarraituz: *gelan landu den testu baten kopia, hitz baten kopia...*
- Eredurik gabe: *hutsuneak betetzea, ipuinaren titulua idaztea, pertsonaiaren izena, errezeta baten osagaiak...*

Oharra: beharrezkoa denean, euskara irakasleak hurrek ekoiztutako testuak transkribatuko ditu.

## 1.5. A ereduaren ezaugarriak

A ereduko curriculumean, euskara ikasgai bat da, hau da, ikasleei euskara irakasten zaie saio kopuru jakin batean. Hortaz, eredu honetako ikasleek lortuko duten gaitasuna ezberdin samarra izanen da euren ama-hizkuntzaren arabera.

Euskara ama-hizkuntza dutenek curriculumeko beste arloren bat euskaraz ikasten badute, euskaraz gaitasun maila altuagoa lortu ahal izanen dute, hizkuntza erabilera-eremu ezberdinetan landuko dutelako.

Erdaldunek, berriz, derrigorrezko eskolaldian ez dute lortuko gaztelaniaz adinako gaitasunik, A eredua ez da eta programa elebiduna. Eguneroko egoera jakin batzuetan euskaraz komunikatzea lor badezakete ere, beste batzuetan gabeziak izanen dituzte.

Ama-hizkuntzaz gain, eragin handia duten beste faktore batzuk hauen izan daitezke, besteak beste: hizkuntzak ingurunean duen presentzia eta indarra, ikastetxean elkarrekin bizi diren hizkuntza guztien normalizazioa eta familiak hizkuntzarekiko duen interesa.



Hortaz, batez ere ikasleen ama-hizkuntza eta euskarak ingurunean duen presentzia hartuko ditugu kontuan gelako jarduerak zehazterako orduan.

Haur Hezkuntzan, euskararen ikaskuntzan lehendabiziko urratsak emanen dira, eta, LHn, aurreko etapa horretan ikasitakoa indartu, zabaldu eta finkatu egin beharko da. Ondorioz, edozein hizkuntza ikastea aberasgarria den unetik, Haur Hezkuntzako etapa hizkuntzara hurbiltzeko erabiliko dugu, eta baita LHn ikasten jarrai dezaten behar den motibazioa piztu eta mantentzeko ere.

A ereduak Nafarroan dituen ezaugarriez eta bilakaeraz gehiago jakiteko:

- A ereduaren datu batzuk (*A ereduko jardunaldiak, 2003ko maiatza*, Nafarroako Gobernua, Hezkuntza Departamentua, Iruñea, 2003).
- Metodologiaren bilakaera (*A ereduko jardunaldiak, 2003ko maiatza*, Nafarroako Gobernua, Hezkuntza Departamentua, Iruñea, 2003).
- Kutxa gorriak, Euskal Hizkuntza eta Literatura, A EREDUA -105. orrialdetik 114. orrialdera- (Nafarroako Gobernua. ISBN: 84-325-112-X).

## 1.6. Metodologia ikuspegiak

### 1.6.1. 2Hren didaktikari buruzko oinarrizko irizpideak

Edozein hizkuntzak oinarrizko 2 funtzio ziurtatzen ditu:

- **Komunikazioa**: ingurune fisiko eta sozialaren adierazpenak eraikitzen lagunduko digu.
- **Irudikapena (linguistikoa eta ez linguistikoa)**: sentipenak, bizipenak, ideiak, iritziak... igortzen lagunduko digu.

Bigarren Hizkuntzei dagokienez eta guri dagokigunez, zailagoa izanen da A ereduan euskaraz komunikazioa eta irudikapena ziurtatzea. Eta arrazoia, besteak beste, haurrak A ereduan euskararekin duen hartu-eman da, askotan ikasgelan izaten baita bakarrik.

Beraz, erabilera didaktikoan komunikazioa ziurtatzeko, ikuspegi funtzionaletik jorratu beharko dugu. Hots, 2Hren irakaskuntza ikuspegi globalizatzaile, funtzional eta esanguratsutik planteatu behar dugu, gure ikasleek bai komunikazioa bai irudikapena ahalik eta hobekien bereganatzea nahi badugu. Izaera global hori ikaskuntza esanguratsuari lotuta dago, hain zuzen ere, ikaskuntza mota honetan ez direlako esperientziak eta ezagupenak soilik pilatzen. Elementu zahar eta berrien arteko loturak sortzen dira, hau da, barneratuta dituzten ikasketen eta ikasketa berrien barneratzearen arteko loturak sortzen dira. Honela, haurraren ekintza eta pentsamendu eskemak berregituratu eta zabaldu egiten dira.

Azken helburua haurren komunikazio-gaitasuna (ahozkoa/idatzizkoa) euskaraz garatzea bada, hurrengo hauek aintzat hartu beharko ditugu:

- a) *Aurrezagutzetatik abiatzea*: haur bakoitzak 2Hn dituen ezagutza multzoak, ahalmen linguistikoaren garapen maila... detektatu eta ezagutu behar ditugu. Hortik abiatuko gara ikasle bakoitzaren komunikazio gaitasuna zabaltzeko. Hori lortzeko, komunikazio egoeren jarraipen zehatza egin behar da, eta behaketa sistematikoa izanen da Haur Hezkuntzan erabiliko dugun tresna, besteak beste.

- b) *Aniztasunari kasu egin*: eskolan sartzean, hurrek ezagutza eta esperientzia oso ezberdinak dituzte. Ezberdintasun horiek haurren garapen prozesu osoan gertatuko dira, ikaskuntza erritmo ezberdinak izanen baitituzte. Ondorioz, aniztasun horri erantzuteko, estrategia didaktiko ezberdinak planteatu beharko ditugu. Haur bakoitzak informazioa bere modura bereganatzen duenez, ikusmen, ukimen, entzumen eta usaimen jarduerak eskaini beharko ditugu.
- c) *Elkarrekintza bultzatu*: hizkuntza besteekin egindako elkarrekintzaren bidez bereganatzen da; beraz, elkartruke hori bultzatuko duen hezkuntza-interbentzioa bermatu beharko dugu. Horretarako:
- Irakasleak irakasle-ikasleen arteko elkarriketak bideratuko ditu.
  - Ikasleen arteko elkarrekintzarako, jarduera errealak edo ahalik eta errealean planteatu beharko ditugu, haurren ulermena errazteko (haurrentzat zentzua dutenak).
  - Elkartruke komunikatiboko egoerak aurkeztu eta girotu beharko ditugu.
  - Komunikazio esperientziak zabaltu eta ugaritu beharko ditugu.
  - Bigarren hizkuntzaren erabilera funtzionala ahalbidetzen saiatuko gara.

## 1.6.2. Nola bideratuko dugu hori guztia?

### 1.6.2.1. Gelaren dinamika

a) Ikaslea: ikuspegi komunikatiboaren arabera, ikaslea bere hezkuntza prozesuan inplikatu behar da, eta hori gerta dadin, irakasleok ikaslea hasieratik inplikatu behar dugu, aldeko jarrerak, jakin-mina eta abar bultzatuz. Parte hartzea bultzatzeko, estrategiak bilatu behar dira; batetik, hurrei interesatzen zaizkien gaiak eta jarduerak aukeratuz, eta, bestetik, helburu errealeko komunikazio lanak prestatuz. Gure ikaslea rol ezberdinak izaten ohitu behar dugu: batzuetan entzule eta besteetan igorle. Irakasleak aktibo bihurtu behar ditugu, bai ulermenean bai adierazpenean.

b) Euskara irakaslea:

ZER EGIN	NOLA
Ikasleei segurtasuna emanen dien eta komunikazioa erraztuko duen <b>giroa sortu</b> .	Espazioak, testuinguruak ziurtatuz... - Alderdi afektiboa zainduz: harreman afektibo honi esker, hurrek segurtasuna eta arriskuak hartzeko konfiantza lortuko baitute. - Saiakerak afektiboki sarituz: ikasleak egiten dituen saiakera guztiak errespetatu, eta komunikatzeko laguntza eskaini (esaldiaren hasiera eman, galderak egin...).
Euskararen <b>erabilera funtzionala eta instrumentala sustatu</b> .	<b>Gelaz kanpoko beste espazio batzuetara zabalduz</b> : euskara komunikatzeko tresna gisa erabiliko dugu gela barruan, eta kanpoan ere bai (patioan, korridoreetan, etxean...), ahal den neurrian.
Hurrek euskarazko <b>mezuak ulertuko dituztela bermatu</b> .	Irakasleak ikasgelan euskaraz egiten du, eta, eredu izateaz gain, zuzentzaile lana ere egin beharko du, adierazpenak erraztuko ditu hitzak ongi ebakiz, doinua markatuz, keinu eta irudiak erabiliz, galderen formulazioak sekuentziaz, galdera itxiak eginez (bai edo ez erantzutekoak, eta pixkanaka-pixkanaka irekiagoak eginez).

<p>Haurrek <b>ahozko ekoizpenak euskaraz egin ditzaten bultzatu.</b></p>	<p><b>Haurren ama hizkuntza errespetatuz:</b> haur txiki hauek beren ama hizkuntzara joko dute maiz. Batez ere beraien artean harremanetan daudenean, txokoetan, adibidez. Egoera hau normalizat joko dugu. Haurrek ama hizkuntzara jotzen dutenean, guk, irakasle gisa, euskaraz esku hartuko dugu modu naturalean.</p>
<p><b>Jarrera eta jokaera linguistikoa zaindu:</b> irakaslea eredu da.</p>	<p><b>Hizkuntzaren erabilera zainduz:</b> testuak ongi aukeratuz (ahozkoak bereziki), mezuan eta funtzionaltasunean arreta berezia jarritz.</p> <p><b>Input nahikoa, egokia eta interesgarria emanez:</b> gelan euskara erreala erabili behar dugu, eta ez behin eta berriro errepikatzen diren esaldi motzak. Arretari eusteko, gaiak interesa sortu behar du: berria, interesgarria, mailara egokitua...</p> <p><b>Akatsak onartuz, ikasteko bide gisa:</b> akatsa ikaskuntzaren zati garrantzitsua da. Akatsak eta interferentziak ikasteko prozesuaren berezko elementuak dira, eta, beraz, hizkuntza berria barneratzen ari dela erakusten dute. Hortaz, akatsak modu naturalean zuzentzeko, batetik, haurra prozesuan inplikatu behar dugu, eta, bestetik, komunikazioa etenik gabe jarraitu, adibidez: esandakoa birpasatuz, hasiera erraztuz, ahozko eta idatzizko testuen aurrean hausnarketa eginaraziz (titulua, egitura...), ereduak eskainiz, elkarri ekoizpenak zuzenduz...</p>
<p><b>Ahal den neurrian, eskolan eta etxean euskararen normalizazioa bultzatu.</b></p>	<p><b>Euskara eskola-ingurune osora zabalduz:</b> txartelak, etxerako oharrak...</p> <p><b>Familia prozesuan inplikatur:</b> haurrek euskararen egiten dituzten lanak eta aurrerapenak kontuan har ditzatela eskatuz, etxean euskarazko materiala izan dezaten animatuz (pailazoen kantak, euskarazko DVDak, ipuinak...)</p>

### 1.6.2.2. Ulertuak izateko estrategiak

Aintzat hartu beharko ditugu ikasleek irakasleen ahozko ekoizpenak ulertuko dituztela ziurtatzeko zenbait elementu garrantzitsu:

- Testuingurua.
- Keinuen bidezko laguntza.
- Laguntza adierazgarria (irudiak, ipuinak, txotxongiloak...).
- Hitz klabea (kokatzeko eta arreta jartzeko).
- Gaztelaniazko itxura duten hitzak, adibidez: desberdina = diferentea; oihala = tela; zerrenda = lista; garrantzitsua = inportantea; albistea = notizia.
- Hitz bat ongi barneratu ondoren, sinonimoak erabili.
- Zenbait formula errepikatu eta erabili (erabil ditzaten, gelako leku estrategikoetan jarriko ditugu): *Komunera joan naiteke?, Nola esaten da euskaraz ...?, Nor da arduraduna?, Nolako eguraldia egiten du gaur?, Utziko didazu, mesedez...?*

Eguneroko egoerak ulermena ziurtatzeko erabiliko ditugu:

ESKOLAZ KANPOKO EGOERAK SIMULATZEKO	
Egoerak	Jarduera motak
	- Antzerki motzak: dendan, medikuarenean...



EGUNEROKO AGURRAK ETA OHIKO ESALDIAK EKOIZTEKO	
Egoerak	Jarduera motak
Ikasleen bila joatean	- Haurren gela arruntetik euskara gelara joatean
Gelara sartzean	- Haurren gela arruntetik euskara gelara joatean - Egunean eguneko errutinak - Gelako arauak - Arduraduna hautatu - Gelako dinamika
Gelatik ateratzean	- Material banaketa: <i>berokiak, mantalak, estutxeak...</i> - Agurtzeko formulak
Zer-nolako eguraldia dugun esatean	- Egunean eguneko jarduera - Eguraldiaren irudiak - Taula, egutegia
Zer egun den adieraztean	- Egutegia - Belkroz itsasten diren asteko egunen txartelak - Urtaroen irudiak - Jaien irudiak: Gabonak, inauteriak, herriko festak, urtebetetzeak...
Zereginak	- Gelako ordutegia - Jardueren txartelak: <i>hamaiketakoa, patioa, bideoa...</i> - Asteko egunen txartelak
Aginduak ematean/betetzean	- Eguneroko errutinak - Taldeak antolatzean - Jolastokian

GAIETAKO HIZTEGIA BARNERATZEKO	
Egoerak	Jarduera motak
Gorputz atalak	- Panpinetan - Medikuetan - Gometsak itsatsi - Gorputz atalen inguruko kantak
Animaliak	- Irudiak, ipuinak, animalien entziklopediak... - Pare jokoak, dominoak - Plastikozko animaliak, zooa, baserria... - Soinuak
Eskola	- Ikastetxeari bisita - Gela batetik bestera joatean - Pista jolasa

NORBERAREN NORTASUNA ADIERAZTEKO	
Egoerak	Jarduera motak
Izena eta abizena(k)	- Aurkezpenak - Deskribapenak
Adina	- Kantak: <i>Bat, bi, hiru, lau...</i> - Urtebetetzeak
Jatorria eta bizilekua	- Aurkezpenak - Domino jolasa - Bingo jolasa - Familien jolasa - Kartoi mehez (kartulinaz) egindako sakelako telefono erraldoia
Familia	- Argazkiak - Zuhaitz genealogikoak - Rol jokoak
Gogo aldarreak	- Maskarak - Egunkarietako ebakinak: <i>triste, barrez...</i> - Ipuinetako pertsonaiak - Mimika jolasak - Soinuak
Nahiak adieraztea	- Eguneroko jarduerak: jolastokira joatean, jostailuak hartzean, hamaiketako eskatzean... - Gelako lagunen lanak
Zaletasunak	- Jantokiko menua - Mendia/hondartza, kirola/telebista, ordenagailua/ipuina...

JOLASETAN PARTE HARTZEKO	
Egoerak	Jarduera motak
Gelan	- Karta jokoak - Pare jokoak - Tradiziozko eta gaur egungo jolasak
Patioan	- Ezkutaketan, lasterketetan... - Zabuetan

URTEBETETZEAK OSPATZEKO	
Egoerak	Jarduera motak
	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Koroak, maskarak...</li> <li>-Pastela, tarta, gozokiak...</li> <li>-Ohitura ezberdinak kontuan hartu</li> </ul>

DESKRIBAPENAK EGITEKO	
Egoerak	Jarduera motak
Pertsonak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aurkezpen laburrak</li> <li>- Ikasleen argazkiak</li> <li>- Inauterietako, Gabonetako eta ipuinetako pertsonaiak</li> <li>- Maskota</li> </ul>
Objektuak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gelakoak edota etxetik ekarritakoak</li> <li>- Horma-irudiak</li> <li>- Irudiak</li> <li>- Gaiak lantzeko argazki albumak</li> <li>- Begiak estalita objektuak identifikatu</li> <li>- Bloke logikoak</li> <li>- Sailkapenak, serieak</li> </ul>

AHOZKO TRADIZIOA BARNERATZEKO	
Egoerak	Jarduera motak
	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ipuin tradizionalak (<i>Txanogorritxo</i>, <i>Katu botaduna...</i>) eta gaur egungo ipuinak (kamishibaiak)</li> <li>- Olerkiak, kantikak, pailazoen errimak...</li> <li>- Antzerkiak</li> <li>- Jolasak</li> </ul>

ESKERRAK EMATEKO	
Egoerak	Jarduera motak
	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hamaiketakoak banatzean</li> <li>- Fitxak, lanak... jasotzean</li> <li>- Jolasa, kanta bukatzean</li> </ul>

Nola egiaztatuko dugu ulertu dutela?

- TPR (Total Physical Response)[1].
- Jolasen bidez ekintzak adieraziz.
- Egunean eguneko errutinen bidez.
- ...

[1] James J. Asher: *Learning Another Language Through Actions*, Brand New, <http://www.tpr-world.com>.

### 1.6.2.3. Gela antolatzeko irizpideak, hizkuntza eta elkartrukea indartzeko

#### a) ESPAZIOAK

Komunikazioa eta harremanak giro egokiarekin eta espazioen banaketa egokiarekin aberastu daitezke. Garrantzitsua da gela ez izatea erreferentzia-gune bakarra, inportantea da eskolan dauden beste guneak ere gune komunikatibo bihurtzea: *liburutegia, patioa, pasabideak...*

Komenigarria izan daiteke euskara saioetarako erabiliko dugun gelak ikasleen gela arruntaren antzeko antolaketa izatea (3 urtekoekin, batez ere), haurrak seguruago sentituko baitira, espazioa eta espazio hori erabiltzeko modua ezagutzen dutelako.

Horrez gain, komenigarria litzateke ikasgelaren espazio fisikoan bi eremu bereiztea:

- Talde handiko jardueretarako eremua: *alfonbra, korroa, ipuinak kontatzeko, jokoak eta mugimenduzko jarduerak (dantzak, adibidez) egiteko, eta abar.*
- Talde txikietan edo bakarka lan egiteko eremua: txokoak aprobeitza daitezke.

Aberasgarria izan daiteke euskaraz idatzitako txartelekin gelako hormak apaintzea, haurrek behar dutenean euskarri hori erabiltzeko, eta,aldi berean, irakasleak gogoratu nahi dituen hitzak edo egiturak eskura izateko. Ikaskuntza prozesua etengabe indartzen da euskarazko mezuak begi-bistan izanda, eta, horregatik, estrategia didaktiko baliagarria izan daiteke ikasgelako txoko zuria gogoratu beharreko hitz edo egitura garrantzitsuenak itsasteko erabiltzea.

Oro har, hauek izan daitezke Haur Hezkuntzako gela batean aurki ditzakegun txokoak: etxe txokoa (*sukaldea, panpinak...*), jokoen txokoa (*puzzleak, pare jokoak...*), liburutegi txokoa (*ipuinak, beraiek sortutako ipuintxoak, liburuxkak...*), plastika txokoa (*margoak, plastilina, arkatzak...*), eraikuntza txokoa (*piezak, plastikozko adreiluak...*), idazketa txokoa (*fitxak, ekoizpenak...*), txoko zuria (gaiarekin lotuta dagoen informazioa bilduko duena)...

Halaber, materiala eta amaitu gabeko lanak gordetzeko tokiren bat ere beharko dugu: *amaitu gabe dauden fitxak eskegitzeko soka, karpetak, fitxak uzteko erretiluak...*

Nola erabil daitezke Haur Hezkuntzako txokoak 2Hren irakaskuntzan?

	HELBURUAK	BALIABIDEAK	JARDUERAK	ANTOLAKETA
<b>IDAZKETA TXOKOA</b>	Euskarak duen grafiara hurbiltzea.	Fitxak, hitz plastifikatuak, errezetak...	Ipuinaren inguruko fitxa bete: izenburua, pertsonaien izenak... Gelako dosierria bete, zerrendak idatzi...	Talde txikietan egiteko. Oso bideratuta egon behar du. Beharrezkoa bada, irakasleak transkripzioak egingo ditu.
<b>LIBURUTEGI TXOKOA</b>	Euskaraz argitaratutako ekoizpenak ezagutzeta eta horiekin gozatzea.	Ipuinak, albumak eta irudiak dituzten hiztegiak, irakasleak edo beste gela bateko umeek sortutako ipuinak...	Irakurketa libre, ipuinen izenburuen izenak grabatu, informazio zehatz bat bilatu...	Lana bukatutakoan, txoko honetara joan daitezke, eta gaiarekin zerikusia duten ipuinetatik informazioa talde txikietan atera...
<b>ETXE TXOKOA</b>	Jolas sinbolikoan berezko elkarrizketak ekoiztea.	Sukaldea (janariak, platerak, sardexkak...), panpinak, medikueta jolasteko tresnak, mozorroak...	Aitaxo eta amaxoetan jolastu, medikueta jolastu, mozorrotu...	Talde txikietan. Maiz ekoizpenak erdaraz egingo dituzte, irakasleak euskaraz esku hartuko du jolasak proposatuz: bazkaria prestatuko dugu, piratetan jolastuko gara...
<b>ADIERAZPEN ARTISTIKORAKO TXOKOA</b>	Euskaraz emandako argibideak jarraitzea eta motibazioa piztea.	Aldizkari zaharrak, kartoi meheak (kartulina), artaziak, margoak, kola, tenperak, puntzoiak, plastilina...	Irakasleak euskaraz emandako argibideak jarraituz, egin marrazki edo artelan bat, mozorroak, maskarak, dekoratuak...	Ikasle bakoitzaren lana kontrolatzeko, karpeta batean ikasleek egin duten lana eta data jasoko dira. Ikasleek egindako lan guztiak gelan edo pasabidean izango dira ikusgai eta erabili egingo dira.
<b>INFORMATIKA TXOKOA</b>	Hizkuntzarekin bat datozen jarduerak egitea eta gelan ikasitako hiztegia erabili eta sakontzea.	Haur Hezkuntzarako CD-romak: "Tantto" eta "Txirritx", JClie programak zenbat jarduera... Inprimagailua.	Ipuinak entzun eta ikusi, hiztegiarekin bat datozen jarduerak (irudia eta hitza lotu, aukeratu, ordenatu...), idazketa txokoak, euskaraz hitzen bat idazteko eta inprimatzeko...	Bikoteka. Ordenagailu gelara joan baino lehen, gelan ordenagailua badugu, talde handian azalduko dugu zer eta nola egin behar duten, ondoren beraiek bakarrik egin ahal izateko.
<b>ENTZUNALDI TXOKOA</b>	Ahozkoaren ulermena eta ahoskera hobetzea. Denboran zehar ahozko ekoizpena nola hobetu duten jabetzea.	Grabagailua, ordenagailuan grabatzeko programa, haurrentzako irrati-CDa, ipuinak, kantak...	Entzun eta erreplikatu, istorio bat entzun eta antzestu; deskribapenak entzun eta irudiekin, hitzekin, esaldiekin... lotu. Olerkiak, asmakizunak, ipuinak, errimak edo kantak grabatu. Kantutegiak.	Talde txikietan. Aurretik landu behar dugu irrati-CDa nola erabiltzen den.
<b>MAHAI-JOKOEN TXOKOA</b>	Hizkuntza egoera naturalean erabiltzea eta arauak barneratzea.	Ohiko mahai-jokoak, gai ezberdinetara egokitutakoak (pare jokoak, bingoak, dominoak...), joko didaktikoak, hitzak eta irudiak lotzeko txartelak, kartak...	Taldeka egiteko jokoak. Bikoteka egitekoak.	Hasieran, talde handian jolastuko gara. Behin jokoaren arauak bereganatu dituztenean, talde txikietan eta bikoteka.
<b>TXOKO ZURIA</b>	Gaiaren inguruko informazio interesgarri eta garrantzitsuen antolatzea.	Etetik ekarritako materiala, gaiarekin lotutako irudiak, jostailuak... Hitz garrantzitsuenen txartelak.	Informazioa aurkitu.	Talde handian. Proiektuaren hasieran eta bitartean, informazioa guztion artean antolatu.

Txokoen kudeaketa:

Txokoetako lana kudeatzeko modu bat baino gehiago daude. Irakasle bakoitzak bere taldearen ezaugarriak, autonomia eta erritmoak aintzat hartuta antolatuko du txokoetako lana.

Proposamenak:

- Lan saio batean ataza bat baino gehiago eginez: ikasleak bere lana bukatutakoan, beste txoko batera pasatuko da. Txoko batetik bestera pasatzeko arauak lehenagotik finkatu behar dira, eta ikasleek ezagutu egin behar dituzte, adib.: *txoko batera sartzean, ikasleak bere argazkia belkroan itsatsi behar du, eta lana bukatutakoan erregistro orri batean bere izena edo argazkiaren ondoan gomets bat jarriko du. Txokoz aldatu nahi badu baina txokoa beteta badago, itxaron egin beharko du.*
- Astero ataza ezberdin bat eginez, adib.: ikasleei "Txokoen astea" proposatzen zaie. Euskara saioan, ikasle talde bakoitzak egun horretan egokitu zaion eta gaiarekin bat datorren ataza bat egin beharko du. Adibidez:  
*"Piratak": idazketa txokoa, talde batek gaiarekin bat datorren hiztegitxoa egin behar du; liburutegian, beste talde bat lasai-lasai egonen da ipuinak ikusten eta irakurtzen; hirugarren bat piraten pastela egiten arituko da etxe txokoa; azken taldea eraikuntza txokoa ibiliko da, itsasontzi pirata bat eraikitzen.*

Irakaslea laguntza gehien behar duten txokoetan egonen da. Hortaz, komeni da txoko batzuk besteak baino lasaiagoak izatea. Antolaketa hau aurrera eramateko, hasieratik haurrek argi izan behar dute txoko bakoitzean zer egin behar duten.

b) BALIABIDE DIDAKTIKOAK:

- Benetako testuak: osoak eta ahalik eta egoera errealean aurkezten dituztenak, adib.: *haur bati zapata askatu zaionean berarekin dugun elkarriketa...*
- Haur Hezkuntzako ikasleek sortutakoak: *grabaketak, txartelak, marrazkiak, argazkiak...*
- Ipuinak: baliabide egokia da proposamen berriak gelara sartzeko garaian abiapuntu gisa erabiltzeko. Ipuinak bi gauza ditu bere alde:
  - Hizkuntza testuinguru batean kokatzeko balio du. Alderdi hau oso garrantzitsua da 2Hn.
  - Haurrak errazago inplikatzeko dira, aurkezten zaizkien egoerak ezagutzen dituztelako.

Nola landu ipuina gelan?

- Taldea eroso eseriko da, liburuaren irudiak ikusteko moduan.
- Giro erakargarri eta magikoa sortu gelan: *sarrera erakargarria, hasiera formulak...*
- Formatuari erreparatu: *azala, irudiak, izenburua...*
- Edukiari buruzko hipotesiak egin.
- Zenbaitetan, ipuinaz gain, bestelako formatuak erabili: *txotxongiloak, siluetak, objektu errealak...*
- Taldeari iritzia eskatu: *gustatu zaien, beldurra izan duten...*

Nola kontatu behar da ipuin bat?

- Ipuin bat kontatzea eta irakurtzea ez da gauza bera.
- Ipuin bat kontatzean aintzat hartu beharrekoak:
  - Ahozko hizkuntzarekin lan egitea dakar.

- Narratzaileak ipuinean agertzen diren pertsonaiak parafraseatu egiten ditu.
- Keinuen laguntzaz baliatzen da.
- Ipuinak eta irudiak erakusten ditu, keinuak egiten ditu, ahotsa aldatzen du..., hots, istorioa uler dezaten lortu nahi du.

Ipuin tradizionalak Haur Hezkuntzako adin guztietan kontatu daitezke, baina gaur egun merkatuan dauden ipuinen kalitatea kontuan hartuta, bai euskarri aldetik bai hizkuntza kalitatearen aldetik, bestelako ipuinak ere erabil daitezke gelan.

(Ikus [http://centros.educacion.navarra.es/eibz/liburutegia/irakurketa\\_gidak/a\\_eredua\\_hhlh.htm](http://centros.educacion.navarra.es/eibz/liburutegia/irakurketa_gidak/a_eredua_hhlh.htm)).

- Materiala eskuragarri izateko, espazioak ongi antolatu beharko ditugu: *txokoak, apal bereziak...*
- Gelako liburutegia bultzatu behar da; irakasleak kalitatezko testuak aukeratu beharko ditu, A eredurako egokiak direnak: *ipuinak, egunkariak, liburuxkak...*
- Psikomotrizitateko materiala: *baloiak, gomak, uztaiak...*
- Jolas sinbolikorako materiala: *etxetxoa, mozorroak, panpinak, antzerkia, txotxongiloak...*
- Jokoak: *puzzleak, dominoak, pare jokoak, eraikuntzak, kartak...*
- IKT (Informazio eta Komunikazio Teknologia):
  - Grabagailua, gelako ekoizpenak grabatzeko: *kantak, ipuinak, olerkiak, haurren elkarrizketa motzak...*
  - Irrati-CDa: *grabatutakoa entzuteko, kantak edo ipuinak entzuteko, beste gelakoek egindakoa entzuteko eta abar.*
  - Telebista, bideoak, DVDak: *telebista programak, filmak, beste geletan edo gure gelan egindako antzerkiak ikusteko eta abar. Pailazoen kantak ikusten ditugun bitartean antzezteko.*
  - Ordenagailua: Haur Hezkuntzarako euskaraz dauden programa egokiak erabili, *ipuinak lantzeko, hiztegia barneratzeko, ongi pasatzeko...*

### c) TALDEKATZEAK:

Elkarrekintza mota ezberdinak sustatzeko taldekatze modu egokiena aukeratu beharko dugu, lortu nahi dugun helburu eta jarduera mota ezberdinen arabera.

- Talde handian edo/eta korroan:
  - Sozializazioa sustatzeko eta taldekide sentitzeko aproposa: *talde jolasak, kantak, dantzak, ipuinak...*
  - Saioaren antolaketaren inguruko informazioak emateko: *zer egin behar dugun, zertarako, gelako gatazkak konpontzeko...*
  - Lan saioa hasi eta amaitzeko.
- Talde txikian, lankidetzak eta komunikazioa bermatzeko: *horma-irudiak egiteko, txokoetan jolasteko, antzerkitxoak egiteko...*
- Binaka, elkarreraginaren bidez aberasten diren ikasketak eta elkarri laguntzeko jarrerak sustatzeko: *elkarrizketa motzak, ordenagailua...*
- Banaka, arreta eta kontzentrazioa lantzeko eta norbera bere ikaskuntza prozesuaz ohartarazteko: *banakako fitxak, autoebaluazioa, errutinak, etxera eramateko lanak...*

### 1.6.3. Metodologiaren inguruan zenbait proposamen

Metodo estrukturalak baztertu gabe, metodo komunikatiboak proposatzen ditugu. Helburu nagusia komunikatzea bada, aintzat hartu beharko dugu:

- Abiapuntua beti izanen dira 2Hrekiko dituzten aurrezagutzak.
- Eskolan 2Hren erabilera sustatzen saiatu.
- Ahozkoari lehentasuna eman.
- Gai hurbilak eta interesgarriak proposatu.
- Motibazioa eta interesa sortu eta piztu.
- Funtzionaltasuna, ulermena eta adierazpena erraztu.
- Testuinguru eta komunikazio egoera ezberdinak eman.
- Euskara eta euskal kulturarekin duten lehenengo kontaktua positiboa izan dezaten bermatu. D ereduko ikasleak eskola berean badaude edota ikasle gelan euskaldun zaharrak baditugu, elkarrekintza sustatu: *eskolako ekitaldietan, patio orduan...*
- Adierazpen arloak erabiltzen saiatu: plastika, musika, dramatizazioa...

#### 1.6.3.1. Oztopo metodologikoak

A ereduan, maiz zenbait eragozpenekin topo egiten dugu. Horiek kontuan hartu beharko ditugu, gure metodologian eragina izan dezaketelako:

OZTOPO METODOLOGIKOAK	KONPONBIDEAK
<b>Euskara-gelarik ez izatea:</b> zenbait eskolak duten espazio antolamendua dela-eta, ez dugu euskara-gelarik izanen.	Haur Hezkuntzako gela aprobetxatu beharko dugu, eta, bide batez, bertan dauden baliabide guztiak. Horrez gain, gela horretan euskararako txoko bat izaten saiatuko gara, lantzen ari garen gaiarekin zerikusia duten gauzak antolatzeko eta haurren ekoizpenak uzteko.
<b>Bi gela elkartzea.</b> Bi egoera: 1. Adin bereko haurren bi gela edo gehiago elkartzea. 2. Adin ezberdineko haurren bi gela edo gehiago elkartzea.	Gelen arteko harremanak eta elkartrukeak sendotzeko jarduerak proposatu.  Egoera hau aprobetxatuko dugu, txikienek besteengandik ikasteko.
<b>Haur kopuru handia</b>	Talde txikietan edo txokoetan lan egitea aberasgarria izan daiteke.
<b>Euskara irakasleen egonkortasun eskasa</b>	Urte batetik bestera egin den lana eta ahalegina ez galtzeko, urtero haurrekin egiten dugun lana idatziz jasotzea izan daiteke irtenbidea. Horrela, apurka-apurka, ikasgaien egindakoak jarraipena izanen du.



## 2. HTB (Hizkuntzen Trataera Bateratua)

“Nafarroako curriculumaren etapa desberdinetarako ekarpen berezia da Hizkuntzen Trataera Bateratua (HTB), zeinaren bidez hizkuntza arlo guztietarako metodologia komuna eta irakasleen koordinazioa proposatzen den. Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuak proposatzen du proiektu hau Haur Hezkuntzako bigarren ziklotik hasita.”

23/2007 FORU DEKRETUAK, martxoaren 19koak, Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako bigarren zikloko irakaskuntzetarako curriculumak ezartzen duenak, zera dio:

“Curriculumeko hizkuntza irakaskuntzen koordinazioa, hizkuntzen tratamendu integratuaren bitartez”.

6. artikuluko 3. puntuan (Hezkuntza edukiak eta curriculumak), hauxe irakur dezakegu:

“Hizkuntzak modu integratuan eta koordinatuan ikasiko dira, hizkuntza gaitasuna eskuratzeko prozesua indartzeari begira”.

Hona hemen honen guztiaren funtsa: *“Hizkuntza bakoitzak kode desberdina eta berariazkoa badu ere, komunikatzeko gaitasuna gaitasun konplexua da, hizkuntza desberdinak ikastearen ondorioa. Hau da, ikasteko prozesu bakar bat dago, nahiz eta hizkuntza batzuen kodeak egon, eta horren ondorioz, estrategia berezi batzuk behar dira hizkuntzaren eta metodologiaren aldetik, ikasleak hizkuntza bakoitzean duen gaitasunaren, hura ikasteko denboraren eta dauden baliabideen arabera. Curriculum integratu batek bidea ematen du ikasketa osagarriak izan, hizkuntza bakoitzaren berariazko ezaugarri linguistikoak modu koordinatuan landu eta hizkuntza batean ikasitakoa besteetara transferitu, aplikatu eta zabaltzeko”.* (Curriculumak, Haur Hezkuntza, 2. zikloa).

Honekin lotuta, zera gehi genezake:

“Hizkuntza baten eskurapena ez da fenomeno bakan bat, beste hizkuntza batzuen eskurapenari lotuta dago. Hori dela-eta, eskurapen eleanitzaerako jarreraren azterketan oso garrantzitsua da inplikaturako hizkuntza guztiak kontuan hartzea”. (Cenoz, 2000)

Hau da, Hizkuntzen Trataera Bateratua eskolek duten behar batetik sortu da edo sortu beharko litzateke, ikas prozesuak behin eta berriro ez errepikatzeke eta, apurka-apurka, eskolako programazio bateratu baterantz bidea egiteko, eskolan elkarrekin bizi diren hizkuntza irakasleek akordio komun batzuetara heldu beharko lukete.

Hortaz, hiru hizkuntzak (euskara, gaztelania eta ingelesa) ez dira ikuspuntu kontrajarriekin landu behar; hiru hizkuntzetarako komuna izanen den plangintza orokor bat behar da. Plangintza horretan oinarrituta, interesgarria litzateke komunikazioaren eta irudikapenaren arloko edukiak koordinatzea.

Programazio bateratu horrek hiru hizkuntzak batzeaz gain, hizkuntza bakoitzak dituen berezitasunak bere barne hartu beharko lituzke, eta, era berean, programazioan ere islatu beharko litzateke, hala nola, fonetika, hiztegia, doinua...

“Eleaniztasunari buruzko azken ikerketen arabera, bi hizkuntza baino gehiagoren eskurapena ingurune naturalean nahiz eskola-ingurunean lor daiteke eta ez dakar arazorik ezagutza eta hizkuntza-garapenean”. (Cenoz & Genesse, 1998).

Arazorik badago, arrazoia ez da haurrak ikasi beharreko hizkuntza kopurua, hizkuntza bakoitza irakatsi eta ikasteko prozesuan egon daitekeen koherentzia eza baizik.

Curriculumean irakur dezakegun beste puntu garrantzitsu bat hurrengo hau dugu:

“Halaber, beharrezkoa da beren eta besteen hizkuntzekiko jarrera positiboak garatu eta bestelako hizkuntzak ikasteko sentsibilitatea eta jakin-mina piztea”. (Curriculuma, Haur Hezkuntza, 2. zikloa).

Azken puntu hau aintzat hartzen badugu, gainerako hizkuntzekin gertatzen den bezala, euskararen presentzia eskolan ezinbestekoa dela ere ondoriozta dezakegu. Aurretik azaldu dugun bezala, eskolan hizkuntza normalizatzeko eta jarrera positiboak garatzeko, euskara irakasleak euskararen presentzia bultzatu eta indartu beharko luke, eta, beharrezkoa denean, familiak ere prozesuan inplikatu.

Hortaz, gure programazio proposamena Haur Hezkuntzan une honetan lan egiteko ildotik abiatzen da, baina pixkanaka beste hizkuntzekin koordinazioan lan egin beharko dugula ezin dugu ahaztu.

### 3. ANIZTASUNAREN TRATAERA

23/2007 FORU DEKRETUAK, martxoaren 19koak, Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako bigarren zikloko irakaskuntzarako curriculumak ezartzen duenak, oinarri batzuk deskribatzen ditu. Aniztasunari dagokionez, zera dio:

“Ikasleen aniztasuna kontuan hartuko duen kalitatezko hezkuntza, premia desberdinei erantzuten diona eta zailtasunak sumatu eta aztertu bezain laster konponbidean jarriko dituen”.

Aniztasuna gizakiaren berezko ezaugarria da, eta, beraz, oso arrunta da gure gizartean. Eskola gizartearen ispilua da eta, hori dela-eta, hor ere aniztasuna ohikoa da. Haurren bilakaera-prozesuan une eta erritmo desberdinekin topo egiten dugu. Hori dela eta, prozesu horretan agertuko diren egoera bereziei eta hezkuntza premiei ahalik eta erantzun egokienak ematen saiatu behar dugu. Beraz, edozein programazio egiterako orduan ezin dugu ahaztu gure gelako aniztasuna, eta ondorioz, ikasturteko proiektu guztietan dibertsitate horrek islatuta egon beharko du.

Guk proposatzen dugun metodologiak lan taldea bultzatzen du. Taldekatzeko orduan, saiatuko gara talde orekatuak eta aldi berean heterogeneoak egiten, haur bakoitzaren ezaugarrietan oinarrituta. Horrela, elkarlan eta laguntza jarrerak bultzatuko ditugu aniztasunari erantzun egokia emateko asmotan. Elkarrekintzaren bidez, ikasle bakoitzaren erritmoaren errespetua sustatuko dugu, elkarrekin bizitzeko beharrezkoak diren jarrerak bultzatuz: *besteekiko errespetua, besteen ekoizpenak errespetatzea, parte hartze aktiboa, kideak baloratzea...*

Gainera, gure metodologia prozesuan oinarritzen denez, egokia izan daiteke aniztasunari erantzuna emateko. Izan ere, haurrak, bere aurrezagutzetatik abiatuz, bere ikaskuntza garatuko du. Hots, sistema haurrari egokitu nahi zaio eta ez alderantziz.

Materialak era askotarikoak izanen dira, eta, jarduerak irekiak izateaz gain, zenbait lortze maila izanen dituzte. Norberaren ahalegina eta ahalmenen arabera emaitzak baloratuz, porrot sentazioa ekiditen saiatuko gara.

## 4. METODOAREN EZAUGARRIAK

### 4.1. Proiektuak

#### 4.1.1. Zer dira proiektuak?

Proiektua esanen diogu gelatik abiatzen den edo gelara heltzen den eta talde bezala lantzen den ideia, behar, jakin-min... bati. Helmuga jakin bat erdiesteko egitasmoa antolatzen hasiko da taldea. Prozesu horrek zenbait gaitasunen lana barneratzen du, besteak beste, sormena, manipulazioa eta adierazpena. Proiektuan zehar eginen diren jarduerak azken ekoizpenera bideratuta egonen dira eta proiektuaren iraupena aldakorra izanen da, taldearen arabera.

#### 4.1.2. Zergatik oinarritu proiektuetan?

- Elkarlana ahalbidetzen dutelako, eta, ondorioz, ahozkoitasuna sustatzeko aukera emanen digutelako.
- Haurren interesetatik abiatzen direlako, eta, ondorioz, haurrentzat esanguratsuak izanen direlako.
- Proiektuekin haurrak motibatzea lortuko dugulako, proiektuak interesgarri, eraginkor eta errazak direlako, eta, gainera, azken ekoizpen bat egitera bideratuta daudelako.
- Funtzionalak direlako, ikasleek argi izanen dute zer egiten ari diren eta zertarako.
- Jolasa eta sormena batzen dituztelako.
- Informazioa hainbat modutan bereganatzeko aukera ematen dutelako (ikusmena, entzumena, ukimena...).
- Haur bakoitzaren erritmora egokitzen direlako. Proiektuak haurrari egokitzen zaizkio eta ez alderantziz.
- Azken ekoizpena lortzeko, elkarrekintza eta elkarlana beharrezkoak direlako.
- Ikaslearen parte-hartzea eta sormena bultzatzen dutelako.
- Ikasleak ahozko adierazpena erabiltzera bultzatzen dituelako.
- Ahozko hizkuntza (mintzamina eta entzumena) eta hizkuntza idatzia (irakurketa, idazketa) bere baitan dituztelako.

Oso aberasgarria da proiektuekin lan egitea, hizkuntza lantzeaz gain Haur Hezkuntzan oso garrantzitsuak diren beste alderdi batzuk ere sustatzen direlako, hala nola: aniztasuna, autonomia eta autokontzeptua.

#### 4.1.3. “Egin behar duzue” esalditik, “Nola egin genezake?” esaldira

Alde nabaria dago ikasleei egin behar dutena inposatzearen eta proposatzearen artean. Emaitzak oso bestelakoak izanen dira ikasleei egin beharrekoa inposatzen edo proposatzen diegunean, eta horrek haur taldearen aniztasunari, autonomiari eta autokontzeptuari eraginen dio.

KONTSIGNA (helduak emana)	PROPOSAMENA (helduarena edo haurrena / haurrenak)
“Egin behar duzue”	“Zer iruditzen zaizue... egiten badugu?, Nola egin genezake...?”
ANIZTASUNA	
- EGITEKO BIDE BAKARRA “Horrela egiten da” - EMAITZA BAKARRA	- BIDE BAT BAINO GEHIAGO - PROZESUAREN GARRANTZIA - TALDEAK EKARPENAK EGITEN DITU - TALDEAK ABERASTEN DU
AUTONOMIA	
- HELDUAREN KONTSIGNA ULERTU - BERARI EGOKITU - ZERTARAKO? HELDUARI ERANTZUTEKO - MENPEKOTASUNA	- BERREGITEA, BERRINTERPRETATZEA - SORMENA - ZERTARAKO? ERREALA ETA ESANGURATSUA - AUTONOMIA
AUTOKONTZEPTUA	
- EZ DAKIT - EZ NAIZ GAI - POSITIBOA DA HELDUAREN EREDUA JARRAITZEN BADU	- NEURE ERARA DAKIT/NEURE ERARA IKASTEN DUT/NEURE IKASPROZESUAREN JABE NAIZ - GAI NAIZ - POSITIBOA

Ageda: “Trabajando por proyectos”, Tafallako ILZ.

#### 4.1.4. A ereduan proiektuen bidez lan egiten

Orain arte, proiektuak tutorearekin bakarrik egiten zirela pentsatu izan da. Bigarren Hizkuntzei dagokienez, tutoreak gelan egiten dituen proiektuetara egokitzen saiatu beharko genuke (ikus 2. atala, *HTB*).

Hizkuntzen Trataera Bateratuari erreparatuz, tutorearekin eta beste hizkuntzetako irakasleekin batera proiektuak antolatu eta prestatu beharko genituzke. Horretarako, ezinbestekoa da haur taldearen hezkuntzan parte hartzen duten irakasle guztien arteko koordinazioa. Alde batetik, lana ez errepikatzeke, eta bestetik, hizkuntzen arteko interferentziarik ez gertatzeko.

Proiektu komun baten barruan, eskolako hizkuntzekin egin beharrekoak alde aurretik finkatu eta ezagutu beharko dira. Tutoreak helburu batzuk izanen ditu eta euskara irakasleak beste batzuk, baina proiektu beraren barnean.

Koordinatzea zaila denean eta eskolako hizkuntzek bat egitea ezinezkoa denean (koordinatzeko denbora falta, irizpide ezberdinak...), lan egiteko bi era proposatzen ditugu: lehena, aurretik tutoreak egindako proiektuetatik abiatzea gure proiektuak lantzeko. Bigarrena, geure proiektuak egitea, tutorearena kontuan hartu gabe.

- *Tutoreak egindako proiektuetatik abiatzea*: tutoreak gelan egindako proiektuak behatu eta euskaraz nola landu ditzakegun pentsatu beharko genuke, tutorearekin edo beste irakasle batekin egindakoa eta landutakoa errepikatu gabe, adib.: animalien inguruko proiektua. Tutoreak zailtasun eta sakontasun handiagoko edukiak landuko ditu, eta gainerako hizkuntzetan eduki eta jarduera osagarriak landuko ditugu, adib.: tutorearekin animalien fitxategia egin dezakete, jaten dutenaren arabera animaliak sailkatu (haragijaleak, belarjaleak...); euskaraz, animalien asmakizunak landu ditzakegu, eta, ingelesez, animalien kantak.
- *Geure proiektuak egitea*:
  - *Gelan gertatzen diren egoerei erreparatuz sortuko diren proiektuak*: gelan egunero gertatzen diren egoeren, arazoen, galderen... entzule izan behar dugu, egoera horiek emanen baitigute proiektu bat garatzeko abiapuntua. Ikasleen ideia, interes, motibazioen batean oinarrituta daude.
  - *Irakasleok eraginda sortuko direnak*: lortu nahi dugun helburu zehatz batekin planteatuko ditugunak. Ideia irakasleona da eta haurrak hasieratik proiektuan murgiltzen saiatuko gara. Horretarako, proiektuek interesgarri eta esanguratsuak izan behar dute. Horretaz gain, ezinbestekoa izanen da adinari eta haurren interesei egokituak egotea.

#### 4.1.5. Proiektu multzoen aukeraketa

Programazio proposamen honetarako proiektu multzoak aukeratzeko orduan, kontuan izan dugu:

1. Haur Hezkuntzako haurren ezaugarriak eta beraien interesak, eta interes horiei erantzuna ematen saiatzea.
2. Argi izatea nora heldu nahi dugun edo nora heldu behar dugun: curriculum. Gure arloan, Euskal Hizkuntzan, aintzat hartu dugu gure ustez ikasleei zer jakinarazi behar diegun, adib.: *Euskal Kultura*, nahiz eta curriculumean esplizituki agertu ez.

Irakasleok oso aberatsa izan daitekeen gai bat aukeratzen dugu gure helburuak lortzeko, ikuspegi ezberdinak emateko eta ikaskuntza prozesuak aberasteko. Taldean dauden haurren aniztasunari (batzuk mugituagoak dira, beste batzuk ikertzaileagoak...) erantzuna emanen dion gairen bat aukeratuko dugu.

Horretarako, dibertsitatean jorratu behar dugu:

1. Zer behar dute? Proiektu giza-dramatikoak, adibidez: *txotxongiloak* 3 urtekoekin eta *piratak* 5 urtekoekin.

2. Beren interesak ingurunearen ezagutzarekin lotzea. Proiektu motak: *animaliak, landareak, auzoa...*
3. Adierazpen artistikoa eta dramatizazioa bultzatzen dituzten proiektuak, eta, ondorioz, ahozko ekoizpena beharko dutenak.
4. Ipuina ikaskuntzaren giltzarri. Ipuina indar handiko tresna izan daiteke hizkuntza bat irakasteko eta ikasteko orduan. Hortaz, haurren gustukoa denez, ipuinaren inguruan proiektutxo bat egiteko aukera dago. Hau da, ipuina proiektu bihur dezakegu eduki zehatz batzuk lantzeko eta lortu nahi ditugun helburuak geureganatzeko.

#### 4.1.5.1. Haur Hezkuntzako esperientzien funtsa

Esperimentazio, plastika eta jolas sinbolikoaren bidez eraikitzen dira haurren ikasketa esanguratsu eta adierazgarriak. Horietaz baliatu gara gure esperientziak bideratzeko.

Haur Hezkuntzako 2. zikloko hiru mailetarako proposatzen ditugun esperientzia guztiak Haur Hezkuntzako eduki multzoen barruan barneratuta daude. Eduki multzo horien barruan ditugu: adierazpen artistikoa, ingurunearen ezaguera, euskal kultura eta jolas sinbolikoa. Hauek guztiek A ereduko edukiak lortzen eta bideratzen lagunduko digute.

	Zergatia
ADIERAZPEN ARTISTIKOA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Haur Hezkuntzako haurren komunikazio tresna garrantzitsua da, adierazteko beste modu bat.</li> <li>- 2Hetan maiz formatuari erreparatu behar diogu motibazioa pizteko, eta plastikak hori egiteko aukera ematen digu.</li> <li>- Plastikak hezkidetzat du bere baitan. Arte lan batek ez du generorik, neska edo mutil batek sortua izan daiteke.</li> </ul>
INGURUNEAREN EZAGUERA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Inguruneak eta bertan gertatzen diren aldaketek haurrek ikasketa esanguratsua, adierazgarria eta eraginkorra izatea baimentzen dutelako.</li> </ul>
EUSKAL KULTURA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- LHko curriculumean euskal ohiturek duten tokia kontuan hartu behar delako, eta horien hastapena Haur Hezkuntzan egitea komenigarria delako.</li> <li>- Hizkuntza eta kultura oso loturik daudelako.</li> </ul>
JOLAS SINBOLIKOA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Haur Hezkuntzan desioak eta ikasitakoa komunikatzeko modurik adierazgarriena delako.</li> <li>- Jolas sinbolikoarekin ongi pasatzeaz eta gozatzeaz gain, sormena sustatuko dugulako, eta, bide batez, haurrentzat komunikatzeko giro natural eta eroso izatea lortuko dugulako.</li> </ul>

Oharra: Beste sailkapen batzuk ere balekoak lirateke, hau da, Haur Hezkuntzako bestelako alderdiak aukera daitezke, gehiago edo gutxiago.



#### 4.1.5.2. Proiektu proposamenen zerrenda

Aurretik deskribatu dugun atal bakoitzari proiektu proposamen bat egokitu diogu. Haurren adinaren arabera, hauxe da gure sailkapena:

	ADIERAZPEN ARTISTIKOA	INGURUNEAREN EZAGUERA	EUSKAL KULTURA	JOLAS SINBOLIKOA
3 URTE	MAITE ZAITUT!	EUSKARA GELA EZAGUTZEN	HEMEN DAGO OLENTZERO	PAILAZOKERIAK
4 URTE	ZAZPI GALTZAGORRIAK	IKUSI, IKUSI, HAN	MIELO, MIELO, MIEL OTXIN	FRUTA-DENDA
5 URTE	ALTXORRAREN BILA!	BURUKO HURA	IKIMILIKILIKLIK!	ARTISTAK GARA

Oharra: Proiektu guztiak azken ekoizpen bat egitera bideratuta daude. Ahozko ekoizpena oinarria eta helburua izanen da aldi berean. Ez dute ordena jakin bat jarraitzen, norberak erabaki dezake noiz egin.

#### 4.1.6. Proiektuetan ager daitezkeen ekintza motak

- **Errutinak:** haurrek barneratzen duten hizkuntzaren zati handi bat egunero errepikatzen diren egituren bidez transmititzen da: agurrak, eguneroko ekintzak, arduraduna, gelan egunero gertatzen diren egoera naturalak... (ikus 4.3.).
- **Elkarrizketa motzak:** gaiarekin bat datozen gramatika egiturek hizkuntza lantzen lagunduko digute, eta, bide batez, haurra ahozko hizkuntza erabiltzera bultzatuko dute: binaka, hirunaka, talde txikietan, txotxongiloekin, panpinekin...
- **Ipuina:** baliabide egokia da proiektua abiatzeko, baita ulermena eta ahozkotasuna lantzeko ere.
- **Kanta edo dantza:** oso erakargarriak dira eta hizkuntzarekin jolasteko aukera aparta eskaintzen digute. Ikasteko prozesuan, euskarara hurbiltzeko aukera erreala eskaintzeaz gain, soinua, erritmoa eta doinua barne hartzen dituen hizkuntza eredu bat ematen dute. Askotan, mugimenduekin batera abesten dira (txaloak, keinuak, dantza eta abar). Horrela, haurrak motibatu egingen dira, eta errazago jarraitu eta gogoratuko dituzte. Era berean, oso egokiak dira saioa girotzeko, eta, horregatik, komenigarria da saio gehienetan erabiltzea. Abestia berria bada, zatika erakuts dakieke zenbait saiotan. Ikasturtean zehar landuko diren kantak **kantutegi** batean bil ditzakegu. Bertan, abestiaren titulua, egilea (ezagutzen badugu), kantaren letra eta marrazkitxoren bat jaso genitzake. Ikasleek beraiek egin dezakete lan hori, adinaren arabera.
- **Igarkizunak:** irudimena eta hiztegia lantzeko erabiliko ditugu, baita hizkuntzarekin ongi pasatzeko ere.
- **Aho korapiloak, zotz egiteko formulak, olerkiak:** oroimena lantzeko eta hizkuntzarekin ongi pasatzeko. Fonetika lantzeko ere baliagarriak izanen zaizkigu.



- **Errimak eta ekintza laburrak:** ikasleen arreta erakartzeko, lasaitzeko, aspertuta edo nekatuta daudenean animatzeko, jarduera batetik bestera pasatzeko, eta abar.
- **Hizkuntza jokoak** (Urtxintxa taldea): jolasa ez da denbora galtzeko, denbora irabazteko bitarteko bat baizik. Jolasak oso garrantzitsuak dira: batetik, ikasleek hizkuntza egiturak hobeki eta azkarrago barneratzen dituztelako, eta, bestetik, euskararen normalizazio prozesuan eragina dutelako. Gainera, kultura erakusteko tresna egokiak dira, ohiturak ezagutzeko modu aparta. Aldi berean, hizkuntza beste egoera batzuetan erabiltzeko aukera eskaintzen dute: arauak ezartzea, taldeak osatzea, aginduak ematea... Jarduera hauek egiteko erabiliko dira gelako espazio handia, patioa, psikomotrizitate gela, pasabideak eta abar.
- **Antzezpenerak:** oso motibagarriak dira, eta ikasle guztiei parte hartzeko aukera eskaintzen diete. Haur bakoitzaren ahozko ekoizpena aztertzeko aukera ematen digu, eta, halaber, euskararen erabilera gelatik kanpo sustatzeko eta maila bereko edo maila ezberdinetako taldeen arteko harremana sendotzeko aukera ere bai. Antzezleek mozorroak, txotxongiloak edo pertsonaien siluetak erabil ditzakete. Oso aberasgarria da antzezpenera grabatzea, ikasleen ekoizpena ikusteko edota familiari erakusteko, beste ikastetxe batzuekin trukatzeko, eta abarretarako.
- **Plastika jarduerak:** plastikaren bidez sortzen diren materialek (liburuxkek, ipuinek, mozorroek, txotxongiloek...) hizkuntza tresna gisa erabiltzeko aukera eskaintzen dute. Jarduera hauek egiteko, aldeztatik egin beharrekoa oso ongi azaldu behar zaie, pausoz pauso; horretarako, instrukziozko testua erabil dezakegu (*lehenengo, ondoren...*).
- **Fitxak:** banakako lana. Lan-erritmoak oso ezberdinak direnez, baliabideak prest izan beharko ditugu lana lehenago amaitzen dutenentzat edo erritmo motelagoa dutenentzat: mahai jokoak, ipuinak, txokoak...
- **IKT** (Informatika eta Komunikaziorako Teknologiak): idatzeko, hizkuntza jolasetarako...
- Gaiarekin bat datozen **irudiak, bingoak, pare jokoak:** hiztegia barneratzeko eta jokoetan erabiltzen diren egiturak erabiltzeko.

#### 4.1.7. Proiektu berri bat sortzeko pausoak

Aurretik azaldu dugun bezala, irakasleok geure geletan gertatzen diren egoeren ikusle eta entzule izan behar dugu. Egoera horiek aprobetxatuz, proiektu berriak sor ditzakegu gelan. Hori guztia bideratzeko, pauso batzuk jarraitzea proposatzen dugu.

**ZERTARAKO EGITEN DITUGU PROIEKTUAK? ZEIN DA GURE HELBURUA?**



**KOMUNIKAZIO-GAITASUNA SUSTATZEA**



**IKASLEEK KOMUNIKAZIO-GAITASUNA GARATZEKO**

Uneoro izan behar dugu gogoan proiektuekin zein helburu lortu nahi dugun. Hots, hurrek euskaraz hiztegi bat barneratzea (hitzak, esaldiak, esamoldeak, abestiak...) ondoren egoera ezberdinetara orokortzeko eta erabiltzeko. Gure ikasgai honetan, gure lehentasuna izan behar du komunikazio-gaitasuna sustatzeak, hizkuntza bat irakasten ari garelako eta Haur Hezkuntzako curriculumak hori esaten duelako.

Horretaz gain, kontuan hartu behar dugu proiektu berriek proiektuen berezitasunak barne izan behar dituztela. Hala nola, esanguratsuak izatea, motibagarriak, funtzionalak eta abar.

Berezitasun horietatik abiatuz, ez da zaila izanen gure proiektuak eraikitzea.

**A. ESANGURATSUAK IZATEKO:** interesgune bat bilatu edo interesgune batetik abiatu: interesgunea nondik sor daiteke?

- Hurrek proposatutakoak izan daitezke: hurrek gelan esaten dutenaren entzule izan behar dugu. Egunero, proiektu ezberdinak eta berriak sortzeko pistak ematen dizkigute. Adib.: *oporretatik bueltan kontatzen duten esperientzia batetik sor daitekeen proiektua, beraien herriko jaiak aitzakia hartuta sor daitekeen proiektua, eta abar.*
- Irakasleak proposatutakoak izan daitezke: lortu nahi dugun helburuaren arabera gelan lantzea egokia iruditzen zaiguna, hurrei gustatuko zaiela argi dagoenean edota irakaslea gai batean oso jantzia denean.

**B. MOTIBAGARRIAK IZATEKO:** hurrak gaian edo proiektuan sartzeko estrategiak martxan jarri behar ditugu. Gaia "saldu" beharko diegu. Helburua haur guztiengana iristea izanen da. Adib.: proiektuaren sarrera egiteko, ekintza oso motibagarriak planteatu beharko ditugu hurrak hasieratik proiektura lot daitezen.

**C. AURREZAGUTZETATIK ABIATZEKO:**

Gaiarekiko aurrezagutzak: gaiaren sarrera egiten denean, *eskatu hurrei gaiaren inguruko galderei erantzuteko, gaiarekin bat datorren marrazkia egiteko...*

- Eskatu hurrei "**Zer egin nahi dugu?**" galderari erantzuteko: gaiaren sarrera egin ondoren, motibazio ekintza bat eginez; gelara gaiarekin zerikusia duen materiala eramanez (ipuina, bideo bat...)... Gauza horiekin guztiekin zer egin nahi duten galdetuko diegu, adib.: *gaztelu bat*. Egin nahi dituzten guztiak idatziko ditugu, eta aukera guztien artean gustukoena aukeratuko dugu. Behin aukeraketa eginda dagoenean, galderekin hasiko gara, adib.: *Nolakoak dira gazteluak?, Nor bizi da gazteluan?, Barañainen badago gaztelurik?...* Galdera hauekin, bide batez, gaiarekiko dituzten aurrezagutzak kanporatzea lortuko dugu.

**Oharra.** Batzuetan, *Zer egin nahi dugu?* galdera itxiagoa izanen da, eta ikasleek aukera batzuen artean hautatu beharko dute.

**D. FUNTZIONALAK IZATEKO:**

- Eskatu hurrei "**Zertarako?**" galderari erantzuteko. Erantzunak erregistratu, adib.: pasabidean jartzeko, jolasteko, irakurketa txokoan jartzeko... Denon artean erabakiko dugu.

- Eskatu hurrei “**Nola eginen dugu?**” galderari erantzuteko, adib.: *zer materialekin?, Zer erabiliko dugu?, Zer dugu gure gelan, eskolan?, Zer falta da?, Falta dena nola lortuko dugu?*.
- **Datuak erregistratu:** datuak erregistratzeko zein tresna erabiliko dugun erabaki behar dugu:
  - *Horma-irudi batean.*
  - *Mapa kontzeptual batean.*
  - *Kartoi mehe batean (kartulina batean) zerrenda bat eginez.*
  - ...

**E. AURREZAGUTZAK ZALANTZAN JARTZEKO ETA GAIAREN EDUKIAK ANTOLATZEKO:** informazioa bilatzeko eta pilatzeko moduak planteatu.

- Eskolako/gelako liburutegia
- Internet
- Gurasoak

**Oharra.** 4. eta 5. puntuetako galderen erantzunak bildu eta idatziko ditugu. Horrela, hurrek begibistan izanen dituzte une oro: alde batetik, *zer egin nahi dugun, zertarako egin nahi dugun eta nola eginen dugun*; bestetik, proiektuan zehar jasoko dugun informazio berria antolatzeke erabiliko dugu.

**F. EDUKIAK GARATZEKO:** gaiarekin lotutako ekintzak pentsatu eta prestatu. Mailari eta hurren interesei egokituak, hurrek parte hartzera eta autonomia sustatzera bideratuak: *zer lortu nahi dugun* (gure helburuak), *zer ikasi nahi dugun, zer egin nahi dugun eta zertarako* (funtzionaltasuna) galderei erantzunen diete.

Egin beharreko ekintzak saioetan banatu beharko ditugu (ikus 5.2. puntua).

**G. IKASI DELA EGIAZTATZEKO:** aurrezagutzak hurrekin batera egiaztatu. Proiektua hasi baino lehen zer genekien eta orain zer dakigun alderatuko dugu, adib.: proiektua, dosierra eta horma-irudia berrikusita.

**H. IRAKASKUNTZA-IRAKASKUNTZA PROZESUA HOBETZEKO:** ebaluazioa.

Irakaslea:

- Erabaki proiektuan zer ebaluatuko dugun, ebaluazio irizpideak, eta horiek ebaluatzeke tresnak. Adibidez: *behaketa sistematikoa, taulak, hurrekin izandako elkarriketak...*
- Proiektua bera ebaluatzeke tresna zein izanen den erabaki (komunikazio-gaitasuna garatu da?, nola?, Ahozketasuna lantzen da?, nola?...). Adibidez: *erregistro orria* (ikus 6.1.2.).

Ikaslea:

- Hurren autoebaluazioa bideratzeko modua eta tresna, adib.: dosierra eta horma-irudia berrikusita.
- Hurrak proiektua ebaluatzeke modua eta tresna, adib.: *Sentimenduen taula* (ikus 4.5. puntua eta 6.2. puntua).

## 4.2. Maskota

Haur Hezkuntzan, oso gomendagarria izan daiteke adin bakoitzak maskota bat izatea. Maskota bat gelan izateko arrazoiak hauek izan daitezke:

- Adin horretako haurren antzeko izaera duen maskota bat gelan sartzean, haurrak horrekin identifikatuago sentituko direla ziurtatuko dugu. Horretarako, hasieratik argi izanen ditugu gure maskotaren gustuak eta izaera: *bihurria, langilea, isila, berritsua...*
- Kontzeptu berriak, kantik, errutinak... gelan sartzeko aitzakia da maskota.
- Maskotak gai edo proiektu berri guztien sarrera egiten lagun diezaguke: *zer eginen dugun eta zertarako eginen dugun jakiteko argibideak eman diezazkiguke, proiektuaren izenburua esan dezake, ikasgelara material berriak ekar ditzake, bestelako pertsonaien aurkezpena egin dezake...*

Gure programazio proposamen honetan, maskotatzat animaliak erabiltzea erabaki dugu. Animaliak aukeratzeko arrazoiak honako hau izan daiteke: animalien panpinak merkatuan aurki ditzakegu, hots, eros daitezke. Maskota fisikoki gelan izateak haurrari errealitate puntu bat ematen dio. Horrela, haurraren eta maskotaren arteko elkarrekintza posible izanen da. Maskota "erreal" horrekin Haur Hezkuntzan hain garrantzitsua den joko sinbolikoan arituko gara. Irakasleak maskotarekin maiz hitz eginen du, galderak eginen dizkio, ikasleek ipuina kontatuko diote, gelan ikasiko ditugun hitz berriak, olerkiak, eta abar kontatuko dizkiogu..., haurren irudimena eta komunikazio-gaitasuna sustatzeko.

Poliki-poliki, haurrak maskotarekin izanen dituzten elkarrekintzak gehituz joanen dira, adib.: *maskotak gelan gutun bat utziko du, pistak utziko ditu, ipuina kontatuko digu, bazkaria prestatuko diogu...*

Ikasleei maskota etxera eramateko aukera ere eman diezaiekegu. Gelako zerrendaren arabera, astero ikasle bat aukeratuko dugu. Ikasle horrek maskota etxera astebetetz eramanen du. Etxean gurasoen laguntzarekin zaindu eginen du, gelan maskota agurtzeko erabiltzen ditugun kantik abestu beharko dizkio, eta, era berean, etxean maskotarekin euskaraz jolasteko eskatuko diogu. Hortaz, maskotaren bi peluxe edo bi irudi izatea komeni da: bata, etxera eramateko, eta bestea, eskolan izateko. Euskara saioa dugunean, maskota bat-batean agertuko zaigu gelan, eta aste horretan maskota etxera eraman duenak ezustekoa hartuko du, maskota bere etxean lotan utzi baitu.

Beste animalia batzuk izan daitezke, baina adin bakoitzerako hurrengo hauek aukeratu ditugu:

**3 urtekoen gelan:** haurrek oraindik nagusien laguntza behar dute. **Pintxa urtxintxa** lasaia, goxoa, samurra, maitagarria eta zintzoa izanen da.

**4 urtekoen gelan:** adin honetan haurrak bizkortzen hasiko dira. Horregatik, **Bernardi ardia** (ardi latxa) bizkorra, mugitua eta argia izanen da. Aurpegi alaia eta begi zabalak izanen ditu.

**5 urtekoen gelan:** haurrek asko dakitela pentsatzen dute, "guk hori badakigu". Gure maskota ere jakintsua izanen da, jakintsua eta lasaia. Betizu intelektuala edukiko dugu gelan: **Mua betizua.**

### 4.3. Errutinak

Testuinguru jakin batean, errutina esaten diogu askotan errepikatzen den komunikazio egoera berari. Hasieran, irakasleak errutina aurkeztuko du eta ikasleek errepikatu egiten dute. Apurka-apurka, ikasleak berak izanen dira komunikazio ekintzaren protagonista. Errutina betetzeko erabili behar dituzten esapideen zailtasun maila handitu egiten da, ikasleen hizkuntza gaitasuna hobetzeko.

Errutinak saio bakoitzaren hasieran eta bukaeran egin daitezke, eta gutxienerako iraupena izan beharko dute, beraietan erabiltzen diren hizkuntza egiturak barneratu ahal izateko.

Errutinak hainbat modutan gauza daitezke; adibide moduan, hurrengo hauek aipatuko ditugu:

- Talde handian egin daitezkeenak: irakaslea gidaria da eta gela osoak parte hartzen du. Adibidez: *eguraldia, data, urtebetetzeak...*
- Binaka edo hirunaka: irakaslearekin ekoiztako elkarrizketak, ondoren, talde txikietan egiten dituzte. Adibidez: *elkarrizketa motzak, antzerkitxoak txotxongiloekin...*
- Banaka: eguneko makinistaren betebeharrak. Adibidez: *zenbat etorri diren, zenbat falta diren...* Makinista edo arduraduna nola aukera daitekeen:
  - Gela arruntean eguneko makinista den haurra euskara gelan ere makinista izatea.
  - Euskara gelan dugun zerrendaren arabera aukeratzea.
  - Aukeraketa egunaren arabera egitea (urtebetetzeetan, adibidez).

Irakasle bakoitzak erabakiko du makinista nola aukeratu.

Arduradunaren funtzioak edo betebeharrak ere ezberdinak izan daitezke; besteak beste, honakook izan daitezke: hasierako errutinak ekoiztea, materiala banatzea, kantutegitik kantak aukeratzea, arauak gogoraraztea...

#### Zertarako egin behar dira errutinak?

- Hurrek egunero erreferentzia zehatza izateko.
- Tutorearekin egiten den lanarekin bat etortzeko.
- Konfiantza emateko.
- Saioaren nondik norakoak kontrolpean izateko eta, ondorioz, seguru sentitzeko.
- Ikaslearen eta irakaslearen eguneroko lana errazteko.
- 2. hizkuntzaren egiturak barneratu eta poliki-poliki ekoizten hasteko.

#### Zer nolako errutinak egin daitezke gelan?

Hasierako urteetan, errutinak errazagoak izanen dira eta gero eta zailagoak bilakatuko dira. Haur Hezkuntzan ere mailakatze hori egin behar da. Hots, 3 urtekoekin erabiliko diren errutinek eta 5 urtekoekin erabiliko direnek ezberdinak izan behar dute, haurren garapena ere ezberdina delako.

Errutinak baliagarriak izanen dira, baldin eta zentzua eta erabilgarritasuna badute. Bestela, aspergarri bihur daitezke ikasleentzat eta baita irakasleentzat ere. Errutinak ez dira egiteagatik bakarrik egin behar, helburu bat izan behar dute. 2Hn, lehenengo helburua gelako dinamika ezagutzea izanen da, eta, horrekin batera, hizkuntza egiturak barneratzea.

Proposamenak:

- **3 urtekoak.** Errutina gehienak gelako dinamika ezagutzera bideratuak egonen dira: *agurrak, komunera joateko dinamika, eskaerak, norberaren identifikazioa, materialen banaketa, gelako arauak, irteteko edo sartzeko laguntza eskatzeko, abestiak...*
- **4 urtekoak.** Errutinak zailtzen joanen dira eta beraien erantzunetan ere zerbait gehiago eskatuko diegu: *norberaren nortasuna (izen-abizenak, adina), pertsonaren deskribapena, elkarrizketa motzak...*
- **5 urtekoak.** Errutina konplexuagoak erabiliko ditugu: *nortasuna (izen-abizenak, adina, jatorria, bizilekua), egutegia, pertsonen aurkezpena eta deskribapena, aho korapiloak...*

### Noiz egin behar dira errutinak?

Errutinak goizeko lehen saioan egiten dira normalean, gehienetan korroan edo haur batek parte hartuta (eguneko/asteko makinista). Gure ikasgaien ere, goizeko lehenengo saio hori erabiliko dugu maskota agurtzeko, eguraldiaz hitz egiteko, gelako haurren kopurua zenbatzeko (*Nor falta da?, Non dago?...*), aurreko egunean gertatutakoaz mintzatzeko, eguneko plangintza zein den ikusteko...

Gela batetik bestera joan behar dugunean, abestiak eta errimak erreparatzeko eta erabiltzeko aukera izan dezakegu, eta euskarazko hainbat esapide lantzeko une egokia izan daiteke.

Lehenengo saioa egin eta gero, beste ikasgaiak irakasten dituzten irakasleak (*euskara, ingelesa, HJA...*) Haur Hezkuntzako gelan sartzen hasiko dira. Haur Hezkuntzako metodologian errutinek garrantzi handia dutenez, espezialista bakoitzak bere ikasgaien ere erabiliko ditu. Horregatik, errutina berberak behin eta berriz errepikatu ez arren, egokia izan daiteke ikasturte hasieratik espezialista bakoitzak zein erabiliko dituen jakitea.

Modu asko daude errutinak planteatzeko, baldin eta gure helburua zenbait hizkuntza-egitura euskaraz barneratzea bada. Errutina bat olerki bat izan daiteke edo bi haurren artean egiten den elkarrizketa motza.

Haur Hezkuntzako hurrekin hainbat errutina erabil ditzakegu euskara saioko ordutegiaren arabera edo gai bakoitzarekin duten loturaren arabera.

- Goizeko edo arratsaldeko lehenengo saioan: gelara sartu baino lehen, beroki eta mantalekin, "jantzi-erantzi" errutina egin dezakegu. Baita *etorri diren eta falta diren haurren kopuruaren, asteko egunaren, nola sentitzen diren galderaren...* inguruan ari gaitzke. Eguneko gainerako saioetan ez du zentzu handirik horiek lantzeak, hots, eguneko laugarren saioan eguraldiaz hitz egitea ez dago gaizki, baina, ziurrenik, ikasgaien batean egin dute jada. Goizeko 4. saioan zer-nolako eguraldia dagoen galdetzean, errutinekin bilatzen genituen hasierako helburuak galdu egin ditugu, hots, testuingurua aprobetxatzea, eta zentzuduna eta funtzionala izatea.



- Gainerako saioetan: errutinak hizkuntza-egiturak barneratzeko bide gisa ikusten ditugu. Hainbat modutan planteatu daitezke gelan. Hemen ideia batzuk aipatu ditugu:
  - **Eguneko saioaren sarrera egiteko:** korroan esertzeko errutina, jolasa edo kanta, zerrenda pasatu (“Non dago Aimar?”), maskota agurtu... Saioa hasi baino lehen, ikasleei saioan zer egingen dugun azalduko diegu. Horretarako, baliagarriak izan daitezke irudiak; irudi horiek lan zehatz bat egin behar dugunean eman beharreko pausoak azaltzeko ere erabil ditzakegu. Mota honetako hizkuntza-egiturak landu ditzakegu, adib.: *Lehenengo / hasteko, korroan eseriko gara*; aldi berean *Korroan eseriko gara* irudia erakutsiko diegu. *Bigarren / ondoren, antzerkitxo egingen dugu*; *Antzerkiaren* irudia erakutsiko diegu eta aurreko irudiaren azpian jarriko dugu...
  - **Asteheneroko saioa:** asteko ekintzak azalduko ditugu, hots, astean zehar ekintza bereziren bat dugunean:
    - Ohiko ekintza bat denean: astero, ekintza bera dugunean. Adibidez: “Ostegunetan, euskara saioaren ondoren, zer dugu? Patia dugu”.
    - Ezohiko ekintza bat dugunean: *urtebetetze bat dugunean, jaialdi bat dugunean...* Adibidez: “Zer izanen dugu astearte honetan? “Urtebetetzea izanen dugu / Jaialdia izanen dugu”.
  - **Ostiraleko saioa:** asteko egunen izenak birpasatzeko, maskota agurtzeko kanta abesteko, adib.: *ostirala iritsi da, mantalak garbitu, maskotaren abestia...*
  - **Hamaiketakoa:** hamaiketakoaren saioan beste zenbait hizkuntza-egitura erabil ditzakegu. Une interesgarria da komunaren inguruko errutinak euskaraz lantzeko eta esker ona adierazteko.
    - *Komuna: pixa egin eta eskuak garbitu; xaboia hartu, eskuak urarekin busti, igurtzi, lehortu...*
    - *Hamaiketakoa banatzen:* hamaiketakoa poltsan ekartzen dutenean, bestelako hizkuntza-egiturak lantzeko erabil dezakegu. Adibidez: *Norena da poltsa hau? Nirena.* Arduradunak ere eguneko hamaiketakoa bana dezake, adib.: *Tori, Miren. Eskerrik asko.* Hamaiketakoa jatera doazenean ere *Ireki mesedez, eskerrik asko, Ez horregatik bezalako esaldiak landu daitezke. Bukatutakoan Poltsa gorde, Paperak eta zaborrak zakarrontzira bota, Ilaran jarri...*
- **Patia:** batetik, haurrak patio orduan jolastokira ateratzen direnean eta, bestetik, gure saioan haurrak patiora ateratzen ditugunean.
  - *Patiora atera baino lehen:* saio honetan ere, goizeko lehenengo saioan aipatu dugun bezala “jantzi/erantzi”, jantzien izenak, “lotu”... jantziei buruzko hiztegia landu dezakegu. Berokiak arduradunak ere bana ditzake *Norena da hau?, Nirena/Nirena ez.*
  - *Patio orduan:* patiora ateratzen garenean hurrekin euskaraz arituko gara. Normala da beraien arteko gatazkak izatea, baina, ahal den neurrian behintzat, euskaraz konpontzen edo laguntzen saiatuko gara: *Zer gertatu da?, Non hartu duzu min?, Eman musu bat.*



- *Patioa*: toki aproposa da euskara erabiltzeko. Haurrak patioa ateratzen ditugunean euskaraz jolas daitezten saiatuko gara. Horretarako, euskaraz jolasten irakatsi behar diegu: *harrapaketan, ezkutaketan, ibilbideetan, esku jolasetan...*
- **Jantokira joan aurreko eta osteko saioak**: bi saio hauek janarien inguruko hiztegia lantzeko bidea ematen digute. Eskolan menua badute, komenigarria litzateke gelan asteko menua euskaraz izatea edo euskaratzea.
  - *Jantokira joan aurreko saioa*: egun horretarako prest dagoen menuari buruz hitz egin daiteke; ostekoan, bazkaldu dugunari buruz. Etxean bazkaltzen dutenek, baldin badakite, zer jan duten konta dezakete eta, bestela, zer jan nahiko luketen. *Zer dugu gaur bazkaltzeko? 1. platera, 2. platera eta postrea.*
  - *Jantokitik etorritakoan*: jandakoa ordenan aipatzen ikas dezakegu: *lehenengo, gero, eta azkenik, postrerako*. Honetaz gain, beraien gustuei buruz hitz egin daiteke *Gustatzen zait, Ez zait gustatzen* bezalako esaldiak erabiliz.
- **Bestelakoak**: mezu-mandatuak, eskaerak, nortasuna, norberaren identifikazioa (izen-abizenak, adina, jatorria, bizilekua), materialen banaketa, gelako arauak...
- **Asteko egunaren arabera**: astegun bakoitzean errutina bat. Hilero edo hiru hilean behin aldatu, moldatu edo txandaka daitezke. Adibidez: astelehenetan, olerkia; astearteetan, gelako arauak...
  - a) Lantzen ari garen gaiarekin zerikusia dutenak:
    - Adibidez, loreen inguruko proiektua: landare bat gelara eraman, eta egunero edo bi egunean behin, bere hazkunderaz hitz egin (*Lore berriak ditu?, Hosto gehiago ditu?, Zenbatuko ditugu?, Gehiago hazi da?... Neur ezazu landarea, Gehiago hazi da?, Altago dago?, Gaur ura bota behar diogu?...*).
    - Adibidez, janarien inguruko proiektua: grafiko batean haurrek zer gosaltzen, bazkaltzen... duten jaso dezakegu. Aste bukaeran: *zein jaki jan diren gehien, jakiak zenbatu daitezke, sailkatu...*
  - b) Orokorrak:
    - **Olerkiak** banaka esatea. Edo gela bi taldetan banatu: talde bakoitzak olerkiaren zati bat edo esaldi bat esan behar du, txandakatur.
    - **Elkarrizketa** motzak: gaiaren inguruan edo hizkuntza formula zehatzak barneratzeko erabiliko ditugu. Bi hurren artekoak izan daitezke, motzak, errealak eta dibertigarriak, beren munduarekin zerikusia dutenak. Taldeka ere egin daitezke, antzezpen txiki baten antzera, baina askoz errazagoak eta motzagoak.
    - **Kantutegia**: gelan lantzen diren kantekin kantutegi bat sor dezakegu. Kantutegiaren azalari izen polit bat jarriko diogu. Eguneko arduradunak edo makinistak gehien gustatzen zaion kanta aukera dezake. Zergatik aukeratu den ere esan daiteke: *Gustatzen zait* (aurrerago, *Gustatzen zaidalako*), *Polita da* (aurrerago, *Polita delako*)... Gelakideekin abestuko dugu. Oharra: ikasturte hasieran bagaude, aurreko urteko kantak sar ditzakegu eta karpeta berria osatu.

Kanta berriak landu ahala, karpeta sartuko ditugu. Gauza bera egin daiteke *olerki, aho korapilo eta asmakizunekin*.

- **Arauk:** patioko orduaren ondorengo saioetan gelako arauak birpasa daitezke; *Zer moduz pasatu duzue patioan?, Zerbait gertatu da?, Begiratu arauak eta esan...* Behin arauak ongi barneratuta dituztenean, berriak gehituko dira. Komeni da adinaren arabera arau horiek konplexuagoak izatea.

## 4.4. Horma-irudia

Horma-irudiak bi atal izan ditzake. Atal batean, proiektuaren hasieran gaiaren inguruan zer dakiten jasotzeko erabiliko dugu, eta proiektua garatzen dugun heinean, ezagutza berriak ere jasotzeko erabili ahal izango dugu, beste kolore batez. Beste atalean, proiektuaren bukaeran euskaraz zer ikasi duten bilduko dugu.

Garrantzi handiagoa emango diogu gaiaren inguruan euskaraz dakitenari, gaiaren inguruan dakitenari baino. Hau da, proiektuarekin hasi baino lehen, gaiaren inguruan erreferentziaren bat izango dute, zerbait jakingo dute, ziur aski. Ekoizpenak erdaraz izango dira gehienetan, eta irakasleak euskarara itzuli beharko ditu horma-irudian jaso baino lehen. Proiektua bukatutakoan, ikasi dugunaren inguruan galdetzen diegunean, hasieran baino euskarazko ekoizpen gehiago egotea da helburua, eta hori horma-irudiaren bigarren zatia betetzean ikusi ahal izanen dugu.

## 4.5. Dosierra

Dosierra haur bakoitzak eginen duen liburuxkari esanen diogu. Proiektu bakoitza bukatu ahala, ikasleek dosierra beteko dute.

Dosierak proiektuaren marrazkiak, proiektuan atera diren hitzak, olerkiak, kanta eta abar bilduko ditu.

Ebaluazio egunean, proiektuaren azken egunean, alegia, dosierra irekiko dugu, hasieran zer genekien eta zer ikasi dugun alderatzeko.

Proiektua amaitutakoan, etxera eramanez dute dosierra, gurasoekin partekatuzko.

## 4.6. Sentimenduen taula

Sentimenduen taula izanen da proiektuan zehar eginen ditugun jarduerak ebaluatzeko erabiliko dugun tresna. Zenbait saioen bukaeran, ikasleak aukera izanen du jarduera nola bizi izan duen adierazteko, gustatu zaion, gustura sentitu den, erraza edo zaila iruditu zaion...

Ikasle bakoitzak dagokion laukia bete ondoren, taldean eztabaidatuko dugu. Emaitzak baliagarriak izanen zaizkigu gure lana hobetzeko.

## 5. PROIEKTU BAKOITZAREN DINAMIKA

### 5.1. Proiektu baten denbora antolaketa

Edozein proiektu egiten hasten garenean, ezin dugu zehatz jakin zenbat iraunen duen. Proiektua egituratzen eta luzatzen joanen da proiektua bera egiten dugun bitartean. Hortaz, oso zaila izanen da alde zuzenetik zenbat iraunen duen jakitea.

Hala ere, gutxi gorabeherako denbora antolaketa zehaztu daiteke, baina kontuan hartu behar da erreferentzia hutsa izanen dela.

Proiektuaren denbora antolaketan hiru atal bereiziko ditugu, eta atal bakoitza zenbait saiotan zehaztuko dugu:

#### 1. GAIAREN SARRERA

Hasierako egunak (1-2 saio). Motibazioa pizteko, aurrezagutzak aktibatze eta negoziaketa bideratzeko unea.

- Motibazioa pizteko materiala aurkeztuko diegu: *ipuina, kutxa magiko bat, txotxongiloak, jostailuak...*
- Ondoren, hurrek gaiaren inguruan emanen diguten informazioa antolatuko dugu: *horma-irudietan, kartulinetan*)... Hizkuntzarekin lotutako ekoizpenei edukiari baino garrantzi handiagoa emanen diegu. Euskaraz eta beste hizkuntza batez egingen dituzten ahozko ekoizpenak berdin baloratuko ditugu, nahiz eta ekoizpen guztiak euskaraz idatzita jasoko ditugun. Ulermena ziurtatzeko, euskarazko transkripzio idatzia marrazkitxo batekin osa dezakegu.
- *Zer, nola* eta *zertarako* galderak beraiekin negoziatu eta adostuko ditugu.

#### 2. GARAPENA

Tarteko egunetan (2-3 aste, 8-12 saio), arloko edukiak lantzeko behar adina jarduera garatuko dugu. Proiektuaren ebaluazio jarraitua egiteko unea izanen da.

- Gaiarekin bat datorren materiala biltzeko unea: *ipuinak, bideoak, jantziak, jolasak...* Une honetan, behar izanez gero, ikasleen familiei laguntza eskatuko diegu: *gaiarekin bat datozen ipuina, argazkiak, informazio orokorra...*
- Gelako materiala edota etxetik ekarritakoa behatzeko, ezagutzeko eta jolasteko tartea dugu.
- Azken ekoizpena bideratutako ekintzak diseinatu eta gero, hurrekin egingen ditugu. Haurrak gaiarekin oso motibatuta badaude, proiektuak iraupen aldakorra izan dezake. 2Hn ari garenez, aintzat hartu behar dugu 1Hn proiektu hori bera egiteko beharko genukeen baino denbora gehiago beharko dugula; izan ere, 1Hn duten jarioarekin alderatuta, 2Hn ideiak eta proposamenak adierazteko orduan gabezia handiagoak dituzte. Jarduerak

diseinatzeko, ezinbestekoa izanen da, lehenik eta behin, komunikazio-gaitasuna ziurtatuko duten egoera desberdin asko egonen dela bermatzea, eta, horrekin batera, gelako aniztasuna kontuan izatea.

-*Sentimenduen taula* betetzea: proiektuko jarduerak egitean nola sentitu diren adieraziko dute.

### 3. BUKAERA

Azken saioak (2-3 saio). Azken ekoizpena burutzeko, ikasitakoa alderatzeko eta ebaluazioa egiteko unea.

-Azken ekoizpena egin: *beste gelakideen aurrean antzeztu, pasabidean erakusketa egin, grabazioak egin...*

- Dosierra eta horma-irudia berrikusi (ebaluazioaren zati bat): hizkuntzaren inguruan hasieran zer zekiten eta bukaeran zer dakiten alderatzeko, hots, proiektua hasi baino lehen euskaraz zer zekiten ekoizten, eta bukatu ondoren euskaraz zer dakiten ekoizten alderatzeko.

- Sentimenduen taularen inguruan jardun: talde handian hausnarketa egingen dugu, eta hausnarketa horrek gure hezkuntza ekintza hobetzeko bidea emanen digu.

## 5.2. Saio bakoitzaren denbora antolaketa

A ereduko ikasleek astean lau euskara saio izaten dituzte. Normalean, saio bakoitzaren iraupena 50 minutukoa da, eta, oro har, ikasleek erreferentzia zehatzak izan ditzaten, saio bakoitzak egitura nahiko egonkorra izanen du (ikus beheko laukitxoak). Erreferentzia horiek funtsezkoak dira haurrei segurtasuna ematen dietelako.

Proiektuaren atal bakoitzak saio mota ezberdinak izanen ditu, nahiz eta funtsean egitura antzekoa izan:

1. ATALEKO SAIO MOTA	2. ATALEKO SAIO MOTA	3. ATALEKO SAIO MOTA
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Errutina(k).</li> <li>- Gaiaren sarrera (motibazioa, aurrezagutzak...).</li> <li>- Informazioa jaso (horma-irudia).</li> <li>- Negoziazio jarduerak.</li> <li>- Bukaerako ekintzaren zehaztapena.</li> <li>- Agurtzeko jarduera, talde handian.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Errutina(k).</li> <li>- Aurreko egunean egindakoaren errepasoa.</li> <li>- Egunean eguneko eginbeharren errepasoa.</li> <li>- Edukiak barneratzeko jarduerak, azken ekoizpena bideratuak.</li> <li>- Materialaren behaketa eta manipulazioa.</li> <li>- <i>Sentimenduen taula</i> betetzea.</li> <li>- Agurtzeko jarduera, talde handian.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Errutina(k).</li> <li>- Aurreko egunean egindakoaren errepasoa.</li> <li>- Egunean eguneko eginbeharren errepasoa.</li> <li>- Azken ekoizpena.</li> <li>- Berrikusketa (dosierra).</li> <li>- Hausnarketa.</li> <li>- Agurtzeko jarduera, talde handian.</li> </ul>

**Saio arrunt baten egitura:**

- 1. fasea, hasierako 5-10 min: **agurrak eta errutinak, aurkezpenak**. Gelara sartzen direnean eta egunero eginen direnak. Errutina horiek ez dute zertan berdinak izan, baina bai denboran errepikakorrak, erabiltzen diren hizkuntza-egiturak barneratu ahal izateko (ikus 4.3. Errutinak atala).
- 2. fasea (5-10 min): **errepassoa eta saioan egin beharreko jardueren azalpena**. Aurreko egunean gelan landutakoaren errepassoa eta asteko egunaren arabera egunean eguneko eginbeharren azalpena, talde handian.
- 3. fasea (20-25 min): **hizkuntza egiturak barneratzeko jarduerak**. Saioaren zatirik luzeena beteko dute. Hainbat jarduera proposatuko dira, eta, horiek aurrera eraman ahal izateko, taldekatzeko moduak ere aldatu eginen dira.
- 4. fasea (10-15 min): **agurtzeko kanta eta jolasak**. Bukaeran eginen dira. Gaiarekin bat datozenak izan daitezke, hau da, berriak edo aurretik ezagutzen dituztenak.

**Saio bereziak:**

Noizean behin saio “bereziak” eginen dira: *ikasleen urtebetetzeetan, beste ikasgeletan antzezpenak egiten direnean, ipuin-kontalariren bat datorrenean...*

Oso garrantzitsua da ikastetxeko ospakizunetan parte hartzea (Gabonetan, inauterietan, ikasturte amaierako jaialdietan...), eta egun horietan gauza bereziren bat prestatzea komeni da, ikastetxean euskara normalizatzeko modu bat baita.

**5.3. Jarduera motak**

Saio bakoitzean zer lortu nahi den kontuan edukita, mota bateko edo besteko jarduerak egin beharko dira. Oro har, jarduerak ezaugarri komunak izan behar dituzte:

- Komunikazioa euskaraz bermatuko dutenak.
- Funtzionalak.
- Irekiak, hizkuntza mailari egokituak.
- Taldekatze mota bat baino gehiago antolatzeko prestatuak.
- Elkarrekintza bultzatzeko egokiak.
- Kanpo jarduera (manipulazioa, jolasa, esperimantazioa, ahozkoatasuna...) eta barne jarduera (analisisa, aurrezagutzekiko konparazioa..) sustatuko dituztenak.

Komeni da arreta eskatzen duten jarduerak iraupen laburrekoak izatea, eta beste jarduera mota batzuk tartekatzea. Saioak horren arabera antolatuko ditugu, adib.: *arratsaldeko azken saioan nekatuta badaude, zerbait lasaiagoa eginen dugu; aztoraturik badaude, lasaitzeko ariketaren bat egin beharko dugu hasieran; aurreko saioan tutorearekin korroan egon badira, mugimenduzko jardueraren bat eginen dugu hasieran...*

## 6. EBALUAZIOA

### 6.1. Irakaslearen ebaluazioa

#### 6.1.1. Ikaskuntza prozesua

Haurren **hasierako ebaluaziotik** abiatuko gara, haien aurrezagutzak, motibazioa eta interesak egiaztatzeko. Galderen bitartez bideratuko dugu eta azaleratutakoa horma-irudian islatuko dugu. Hasierako ebaluazio hau proiektua lantzen hastean egingen dugu.

Hemendik aurrera, proiektu osoan zehar, **ebaluazio jarraitua** egingen dugu, haurren arteko elkarriketak behatuz, ikasleak irakasleari eskainitako erantzunen bitartez, jarduera bakoitzaren garapen prozesuaren behaketaren bitartez... Ohar horiek gelan erabiliko dugun egunerokoan jaso ditzakegu.

**Azken ebaluazioa** ekoizpen jardueraren bitartez egingen da, ikasitakoa baloratzeko. Horma-irudia eta dosierra behatuz ere egingen dugu. Horma-irudian, lehen egunean jasotako informazioa kolore batez idatziko dugu, eta saioetan zehar gehitutakoa beste kolore batez. Hala eginik, beraiek ere irakaslearekin batera ikasitakoa ikusiko dute.

#### EBALUAZIO IRIZPIDEAK

##### 1. MULTZOA: HITZEZKO HIZKUNTZA

##### 1.1. Entzun, mintzatu eta solas egitea:

- Testuinguru argi batean, euskara irakaslearen ahozko mezuak entzun, ulertu eta erantzuten ditu.
- Bere adinerako egokiak diren euskarazko ahozko testuen ideia orokorrak entzun eta ulertzen ditu.
- Komunikazio egoera ezberdinetan parte hartu eta egoki erantzuten du.
  - Agurtzeko formulak erabiltzen ditu.
  - Eskatu eta eskertzeko formulak erabiltzen ditu.
  - Argibideei eta gelan erabiltzen diren agindu errazei erantzuten die: *margotu, izena idatzi, materiala bildu...*
  - Errutinetan egiten diren galdera errazetan parte hartzen du.
  - Kanta, dantza, antzerki eta jokoetan parte hartzen du.
- Hitz egiteko txanda errespetatzen du, eta irakaslea eta ikaskideak arretaz eta errespetuz entzuten ditu.
- Berez edota irakasleak eskatuta, ahozko testu errazak ekoizten ditu (*errutinetan erabiltzen diren adierazpenak, formulak, kantak, errimak, elkarriketa motzak...*).



- Euskaraz ikasten dituen hitz berriekiko interesa eta errespetua azaltzen du (*errepikatzen saiatzen da; galdetzen du: nola esaten da hau euskaraz?, zer esan nahi du honek?*).

Ipuinak entzutean modu orokorrean ulertzen dituela adierazten du irakaslearen laguntzarekin.

#### 1.2. Hizkuntza idatziaren hastapenak:

- Euskara gelan erabiltzen diren testuetan idatzita dagoena ezagutzeko interesa azaltzen du (*Zer jartzen du hor?, Nire izenaren hizkiarekin hasten da...*).
- Ama hizkuntzan ikasitako idazketa sistemaren ezaugarriak euskarara aplikatzen ditu.
- Benetako helburu bat lortzeko euskaraz idatzi behar denean (*Gabonetako postalak, urtebetetzeak, oharrak...*), lan jarrera ona erakusten du.

#### 1.3. Literaturaren hastapenak:

- Literatur testuen antzezpenean gozatu egiten du eta parte hartzen du (*ipuinak, olerkiak, aho-korapiloak, errimak, kantak...*)
- Liburutegia behar den bezala erabiltzen du, eta liburutegiak eskaintzen duenarekin ongi pasatzen du.

### 2. MULTZOA: IKUS-ENTZUNEZKOEN ETA INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIEN HIZKUNTZA

- Ikus-entzunezko baliabideek igorritakoa modu orokorrean ulertzen du eta horrekin gozatu egiten du.
- Ikus-entzunezko ekoizpen baten aurrean, irakasleak galdetzean bere iritzia adierazten du: *Gustatu zait, Ez zait gustatu...*

### 3. MULTZOA: ARTE HIZKUNTZA

- Antzezpen eta musika jokoetan egoki parte hartzen du eta ongi pasatzen du: *soinuak, erritmoak, kantak eta dantzak*.
- Norberaren eta besteen lan plastikoak errespetatzen ditu eta irakaslearen laguntzarekin baloratzen ditu (*gelan egindako lan txikiak*).

### 4. MULTZOA: GORPUTZAREN HIZKUNTZA

- Gorputz adierazpena erabiltzen du komunikazioari eta adierazpenari laguntzeko.
- Literatur testu ezberdinen antzezpenetan (*ipuinak, olerkiak, kantak...*) egoki parte hartzen du eta ongi pasatzen du.

Komeni da proiektu bakoitzean **behaketa fitxa bat** izatea: proiektua amaitutakoan ikasle bakoitzaren lorpen maila nolakoa izan den adieraz dezakegu bertan. Haur Hezkuntzarako hiru lorpen maila deskribatu ditugu: *hasieran, garapenean eta amaieran (lorpenak)*.

Hauxe da behaketa fitxaren eredu:

(PROIEKTUAREN IZENA)				
IKASLEA	Hasieran	Garapenean	Amaieran (lorpena)	Oharrak
BEHATU BEHARREKO ALDERDIAK (eredu gisa jarritako adibideak)				
- Gelan landutako hitz joko, aho-korapiloak... soinu eta doinu egokian imitatzen saiatzen da				
- Abestiak, zotz egiteko formulak eta aho-korapiloak ekoizten saiatzen da				
- Besteak errespetatuz, proposatutako jardueretan parte hartzen du				
- Euskaraz jolasten da				
- ...				

*Behaketa fitxaren eredu*

**Oharra.** Proiektu bakoitzak bere behaketa fitxa izanen du; ondorioz, behatu beharrekoak ezberdinak izanen dira.

**6.1.2. Irakaskuntza prozesua**

Hobekuntza lortu nahi badugu, irakasleok egin dugun lana ere baloratu beharko dugu. Behaketaren bitartez, proiektu osoan zehar egingen da gure irakaskuntza prozesuaren ebaluazioa. Datuak jasotzeko, lagungarria izan daiteke proiektuaren planifikazio-ebaluazio taula bat izatea (ikus hurrengo orrialdean).

Edozein proiektu hasi baino lehen, ezkerreko aldea beteko dugu. Eguneroko jardunean eskuineko aldea betetzen joanen gara (eskuz eta zirriborroan). Proiektua bukatzean, eskuineko zutabea beteko dugu ordenagailuan.

PROIEKTUAREN PLANIFIKAZIO-EBALUAZIO TAULA	
AURREZ IKUS DAITEKEENA	AURREZ IKUSI EZIN DENA
NOLA ZEHAZTEN DIRA PROZESUAREN PARTE HARTZEAK? (KORROA, TXOKOAK, TALDEKATZEAK...) (Jarduerak egiteko garaian, nolakoa izanen da gutxi gorabeherako antolaketa?)	ZER NOLAKO EKARPENAK EGITEN DITUZTE IKASLEEK? GELAN SORTU DIREN JOKABIDEAK (Hasierako parte hartzeaz gain, zer-nolako ekarpenak egin dituzte ikasleek? Zerbait proposatu dute? Jokoak, kantak...)

MATERIALAK, HELDUEN LAGUNTZA ETA BALIABIDEAK (Zein baliabide erabiltzea aurreikusi duzu?)	BESTE MATERIALAK, HELDUEN LAGUNTZA ETA BALIABIDEAK (Bukaeran bestelako baliabiderik erabili behar izan duzue?)
AHOZKOTASUNA SUSTATZEKO LANDU NAHI DITUDAN EDUKIAK (Zer-nolako edukiak lantzea espero duzu? Zeintzuk aurreikusi dituzu?)	AHOZKOTASUNA SUSTATZEKO LANDU DIREN EDUKIAK (Bukaeran hasieran pentsatutako horiek landu dira? Gutxiago, gehiago? Besterik landu duzue?)
LANDU DEZAKEGUN TREBETASUN MULTZOA (Zein trebetasun lantzea pentsatu duzu? Ahozkoa (mintzamina, entzumena) eta idatzizkoa (irakurketa, idazketa) eta zein motatako ariketekin?)	LANDU DITUGUN BESTE TREBETASUNAK (Proiektua garatu ahala, hasieran pentsatutako trebetasunez gain, besterik landu duzue?)
PROZESUAREN GARAPENERAKO IRAKASLEAREN PARTE HARTZEA (Nola hartuko duzu parte? Nola lagunduko duzu? Zer-nolako estrategiak erabiliko dituzu laguntzeko?)	BANAKAKO ETA TALDEKAKO PROZESUAREN ERANTZUNAREKIKO IRAKASLEAREN ERANTZUNA EDO PARTE HARTZEA (Proiektua aurrera joan ahala, agertzen ziren egoera ezberdinei nola egin diezu aurre? Bat-bateko arazoei nola erantzun diezu?)

Bestalde, aurretik azaldutako *Sentimenduen taula* (ikus 4.5. eta 6.2. atalak) ikasleekin batera beteko dugu zenbait saiotan, eta, honela, haurrek ere irakasleak jarduera nola bizi izan duen jakiteko balioko du.

## 6.2. Ikaslearen ebaluazioa

### 6.2.1. Irakaskuntza prozesua

Proiektuan zehar haurren sentimenduak kanporatzeko eta baloratzeko *Sentimenduen taula* erabiliko dugu. Horri esker, hainbat jarduera egin ondoren, gustukoa izan duten ala ez adierazteko aukera izanen dute, eta proiektua haien gustukoa izaten ari den ala ez jakin ahal izanen dugu.

Jardueren balorazioa saioaren bukaeran egitea komeni da. Proiektuaren azken saioan jarduera guztien ebaluazioa egingen bagenu, gehiegi luzatuko litzateke eta hasierako asmoa galduko genuke.

Adinaren arabera, *Sentimenduen taula* modu batean edo bestean beteko dugu; proposamena:

ADINA	NOLA BETE
3 URTE	Bi aurpegitxo emanen dizkiegu aukeratzeko: pozik eta triste.
4 URTE	Hiru margo emanen dizkiegu: gorria, laranja eta berdea.
5 URTE	Marrakitxo baten bidez adierazteko eskatuko diegu.

**Oharra.** Hasieran, zaila izanen da baina, behin martxa hartu dutenean, ohituko dira. Ez da saio guztietan egin behar, ezta jarduera guztietan ere, soilik ebaluatu nahi ditugun horietan egitea komeni da.

SENTIMENDUEN TAULA	A JARDUERA	B JARDUERA	C JARDUERA	D JARDUERA	E JARDUERA	ONGI PASATU DUT
1. IKASLEA						
2. IKASLEA						
3. IKASLEA						
4. IKASLEA						
5. IKASLEA						
...						
IRAKASLEA						

*Sentimenduen taula* (Eraldaketa prozesuak ikastaroa, 2007, Elhuyar Aholkularitza, Nafarroako Gobernua, Hezkuntza Departamentua, Iruñea)

Haurrek egiten duten balorazioa askea edo gidatua izan daiteke:

- *Balorazio askea*: ziur asko euren ekoizpenak ama hizkuntzan egiten dituzte eta euskara irakasleok euskarara itzuli beharko ditugu.
- *Balorazio gidatua*: ikasleek, adinaren arabera, arbelean idatziko ditugun aukera batzuen artean bata edo bestea aukeratu beharko dute. Horrela egitearen abantaila da ikasleek balorazioa egiten duten bitartean euskaraz ekoizten dutela, eta poliki-poliki euskaraz arrazoitzeko erabiltzen ditugun esaldien egitura barneratzen joaten direla. Adibidez:
  - 3 urtekoak: *gustatu zait, ez zait gustatu*.
  - 4 urtekoak: *polita delako, itsusia delako, erraza delako, zaila delako*.
  - 5 urtekoak: *gustatu zaidalako, aspertu naizelako, ongi pasatu dudalako, gaizki pasatu dudalako*.

### 6.2.2. Ikaskuntza prozesua

Ikasitakoaz ohartzeko, proiektuaren azken saioetan dosierraren eta horma-irudiaren behaketaren bitartez, ikasleek hasieran zer zekiten eta amaieran zer dakiten alderatu ahal izanen dute.

## 6.3. Ebaluazioaren uneak eta tresnak

NORK	ZER	NOIZ	NOLA	ZERTARAKO
IRAKASLEAK	IRAKASKUNTZA PROZESUA	Proiektuan zehar, saio batzuetan	Behatuz eta egunerokoan islatuz	Irakasleak egindako lana baloratzeko, eta hobekuntzarako
		Saio batzuetan	Sentimenduen taularen bitartez	Haurrekin batera proiektua baloratzeko
		Proiektuaren bukaeran	Proiektuaren planifikazio-ebaluazio taula	Proiektua hobetzeko
	IKASKUNTZA PROZESUA	HASIERAN: Hasierako saioetan	- Galderen bitartez - Horma-irudian islatuz	Aurrezagutzak ebaluatzeko
		PROIEKTUAN ZEHAR: Saio batzuetan	- Egunean eguneko errutinak behatuz - Errepaso eta garapen jardueren bitartez - Egunerokoan islatuz - Ekoizpen jardueraren bitartez	- Prozesua ebaluatzeko - Ikasleek ikasitakoa baloratzeko - Ikasleek ikasitakoaz ohartzeko
		AMAIERAN: Azken saioetan	- Horma-irudia behatuz - Behaketa fitxaren bitartez - Dosierra berrikusiz	- Ikasitakoaz ohartzeko - Ebaluazio irizpideak ebaluatzeko eta ikaskuntza izan den ebaluatzeko
IKASLEAK	IRAKASKUNTZA PROZESUA	PROIEKTUAN ZEHAR: Saio batzuetan	Sentimenduen taularen bitartez	Proiektua hobetzeko
	IKASKUNTZA PROZESUA	HASIERAN: Hasierako saioetan	Horma-irudiaren bitartez	Haurrek beren aurrezagutzak ikusteko
		AMAIERAN: Azken saioetan	Dosierraren eta horma-irudiaren bitartez	Ikasitakoaz ohartarazteko